



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea

GRADU AMAIERAKO LANA

Zuzenbideko Gradua

2020-2021

Monarkia Parlamentarioa: Erregearen prerrogatibak 1978ko Espainiar Konstituzioan

Lanaren egilea: Jonathan Arean Saratxaga

Zuzendaria: Eneko Compains Silva

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Ikerketaren helburuak.....	5
3. Marko teorikoa	
3.1 Monarkia parlamentarioa Gobernu sistema bezala.....	6
3.2 Erregearen prerrogatibak horrelako sistemetan.....	8
4. Espainiar Monarkiaren erregimen juridikoa Konstituzio aurretik.....	12
5. Espainiar Monarkiaren erregimen juridikoa 1978-ko Konstituzioan	
5.1 Bortxaezintasuna, erantzukizun eza eta aforamendua.....	15
5.2 Erregearen funtzioak.....	18
6. Juan Karlos I. Erregearen kasua:	
6.1 Bortxaezintasun Zibila: Aitatasun auziak.....	26
6.2 Bortxaezintasun Penala: Suitzako kausa penala.....	31
6.3 Erregea Parlamentuan ikertzeko ezintasunak.....	33
7. Ondorioak.....	36
8. Bibliografia.....	40

1. Sarrera

Lehenik eta behin, gai hau aukeratu izanaren arrazoiak azalduko ditugu; alegia, 1978ko Konstituzioak Espainiako Erregearentzat arautzen dituen prerrogatibei zergatik hitz egin nahi dugun azalduko dugu.

Hasteko, gai honek duen egunerokotasuna nabarmena da, komunikabideetan, behintzat, pil-pilean dagoen eztabaida bat baita. Horren adibide da 2020ko abenduan argitaratutako berria¹: iazko udatik Dubai-n ihes eginda dagoen Juan Karlos I.-enak 678.000 euro ordaindu zizkion Espainiako Ogasunari, bere finantza egoera legeztatzeke asmoarekin, eta 2021ko otsailean, berriz, 4.000.000 euro ordaindu zizkion ogasunari, bigarren erregularizazio batean².

Adibide gisa jarri dugun gertaera hau oso eztabaidatua izan zen. Espainiako Monarkia inguratzen duen testuinguru guztiarekin gertatzen den bezalaxe, oso posizio kontrajarriak agertu ziren Juan Karlos I.-enak egindako jardueraren inguruan. Hau horrela izanda, Espainiako Konstituzioak Koroari aitortzen dizkion funtzioak eta ahalmenak, batzuentzat pribilegioa izan daitezkeenak, beste pertsona batzuentzat, Erregearen posizio instituzionala babesteko erremintak besterik ez dira. Hala ere, esan dezakegu, Erregeari aitortzen zaizkion ahalmen horiek, talka egin dezaketela Espainiako Konstituzioak bere 14 artikuluan³ xedatzen duenarekin. Artikulu honek azaltzen duen bezala, Espainiar guztiek legearen arabera berdinak dira eta horrek, kontrajarrian jar dezake Erregeak jasotzen dituen ahalmenekin.

Urte batzuetatik hona, Espainiako Monarkiak bizi duen krisialdiaren ondorioz, ugaritu egin dira 1978ko Konstituzioak Koroari aitortzen dizkion prerrogatiben eta instituzio horren beraren mantentzearen aurkako ahotsak. Gure aldetik, Juan Karlos I.-ren figura aztertuko dugu, batik bat, Espainiako Erregea izandako denboran eta abdikazioaren ondotik jasotzen dituen ahalmenen analisi juridikoa eginda. Beraz, lan honen helburua izango da, Espainiako Konstituzioak Erregearen figurari esleitzen dizkion prerrogatibak aztertzea, hauek pribilegioa izan ala ez.

¹ Jiménez, José María (2020). “Juan Carlos I paga 678.393 euros a Hacienda para evitar una causa judicial”, *El País*. Abenduaren 9a.

² Irujo, José María (2021). “Juan Carlos I paga más de cuatro millones al fisco en una segunda regularización”, *El País*. Otsailaren 25a.

³ Espainiako Konstituzioaren 14 artikulua “*Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin dira onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik*”

Helburu hori lortzeko, lanaren lehenengo atalean ikerketaren helburu zehatzak eta marko teorikoa azalduko ditugu, zenbait kontzeptu kontuan hartuz. Horien artean, Monarkia parlamentarioa Gobernu sistema bezala azalduko dugu, eta honelako sistemetan, Erregeak zelako funtzioak betetzen dituen eta zeintzuk diren bere eskumenak. Era berean, sistema hauetan, Erregearen prerrogatibak zeintzuk diren aztertzeko ahalegin berezia egingo dugu.

Hau behin azalduta, bigarren atal batean, gaur egungo Monarkiaren jatorri historikoa azalduko dugu, nondik datorren gaur eguneko Monarkia eta zein izan den bere bilakaera. Honen barnean, ezinbestekoa da azaltzea, nork berrezarri zuen Monarkia, nola eta zergatik. Aipamen labur bat eginez, Franco-k Erregea izendatu zuen, eta trantsizioara helduta, ez zen Monarkia ala errepublika aukeren artean erabakitzeke erreferendumik ospatu. Aitzitik, 1977. urtean erreforma politikoaren legea aldarrikatu zen, eta, kasik bi urte beranduago, 1978ko Konstituzioan, II. Titulu osoa eskaini zitzaion Koroari, bere erregimen juridikoaren oinarriak zehazteko. Hori ere aztertuko dugu lanaren atal honetan.

Azken atalari dagokionez, lan honen atal garrantzitsuenetarikoa azalduko dugu, Juan Karlos I-aren kasu zehatzaren adibidea aipatuz. Honen barnean, Erregearen bortxaezintasuna aztertuko dugu: Bortxaezintasun zibila, Erregeak izan dituen aitatasun demandak aztertuz eta bortxaezintasun penala, Suitzako kausa penala aztertuz. Azken puntu bezala, Erregea Parlamentuan ikertzeko zailtasunak ere aztertuko ditugu, Parlamentuetan eztabaidatu daitekeen gaia den ala ez aztertzeko. Bukatzeko, ondorioak mahaigaineratuko ditugu.

2. Ikerketaren helburuak

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusiak honakoak dira:

Lehenengo eta behin, marko teoriko bat azalduko dugu, Monarkia parlamentarioaren sistema politikoan zentratuz. Honen helburu nagusia, ikuspegi teoriko eta historiko batetik, Monarkia parlamentarioaren erregimen politikoa aztertzea izango da, bereziki erreparatuz, Erregearen prerrogatibetan. Kasu honetan, Monarkia parlamentarioaren sorrera ikertu egingo dugu eta nolako eboluzioa izan duen Europa mailan, Espainiara helduz. Honekin batera, Erregearen prerrogatiben helburua finkatu egingo ditugu, Estatuburuak bere kargua dela eta izan dituen ahalmenak sakonki aztertuz, bortxaezintasuna eta erantzukizun eza ahalmenetan zentratuz.

Bigarrenik, Ikuspegi historiko batetik, Espainiar Monarkiaren erregimen juridikoa Konstituzio aurretik aztertuko dugu, bereziki, Franco-k boterea zeukanean bere ondorengoa aukeratu zuenean erreparatuz, Juan Karlos I. hautatuz. Beraz, ondorengotza ordena salto eginez, honek nolako ondorioak ekarri zituen gure gaur egungo Monarkian ikertu egingo ditugu.

Hirugarrenik, Espainiar Monarkiaren erregimen juridikoa 1978ko Konstituzioan aztertuko dugu, batez ere, Erregeak Espainiar Konstituzioarengatik jasotzen dituen prerrogatibak eta funtzioak aztertuz. Hala ere, bortxaezintasunaren, erantzukizun eza eta aforamenduaren ahalmenak aztertzea izango da helburu nagusia. Beraz, behin 1978ko Konstituzioa sortu zenetik aurrera izandako eboluzioa aztertuko dugu.

Laugarrenik, Juan Karlos I. Erregeak, ikuspegi juridiko batetik jasotzen dituen prerrogatibak aztertuko ditugu, bereziki erreparatuz eremu penalean, zibilean eta politikoan. Kasu honetan, helburu nagusia finkatzeko, Erregeak bere kargua dela eta, izan dituen ahalmenak sakonki aztertuko ditugu, bortxaezintasuna eta erantzukizun eza ahalmenetan zentratuz. Beraz, Konstituzioak Erregeari esleitzen dizkion ahalmenetan garrantzia emanez, bere jokabidea aztertuko dugu Espainiaren Estatuburuak izan zen bitartean. Ikuspegi juridikotik, ahalmen honek nondik norako ibilbidea duen aztertuko ditugu, hau da, bortxaezintasun politikoak, zibila eta penala zer suposatzen duen Juan Karlos I.-ren kasuan eta behin bere kargua utziz, ahalmen horien amaiera suposatzen duen edo ez.

3. Marko teorikoa

3.1 Monarkia parlamentarioa Gobernu sistema bezala

Monarkia parlamentarioa, Gobernu forma bat da non Erregearen figura Estatuburu bezala hartzen da, baina Parlamentuaren eta Gobernuaren kontrolpean mantenduz. Esan dezakegu, Monarkiak, Britaina Handian duela jatorria eta forma politiko bezala, ez dela berehala sortu, baizik eta prozesu luze baten ondorioz⁴.

Esan dugun bezala, Britain Handia, lehenengo Estatua izan zen Monarkia parlamentario bat aplikatzen, XIX. mendean. Honen eboluzio historikoa azaltzeko, XVII. mendera jo behar dugu, Karlos I-a Britain Handiaren Erregea zena momentu hartan. Bertan, botere absolutuko handinahiek, Monarkia eta Parlamentuaren arteko borroka eragin zuen, gerra zibil batean amaituz, eta honen ondorioz, Erregearen botere absolutua eztabaidan jarri zen. Ondoren, Jacobo II. Erregeak, bere boterea erabili nahi izan zuen erlijio katolikoa inposatzeko, nahiz eta biztanleriaren gehiengoa protestantea izan. Honen ondorioz, herria matxinatu egin zen eta Erregeak ihes egin behar izan zuen herrialdetik, abdikazio bat bezala kontsideratuz. Orduetik aurrera, Parlamentuak Erregearen boterea mugatu nahi izan zuen eta Monarkia parlamentarioa ezarri zuten, gaur egun indarrean jarraituz⁵.

Honekin batera, 1689ko *Bill of rights* kontuan izan beharko dugu. *Bill of rights* edo eskubideen legea, Ingalaterrako iraultza loriatsuaren ondorioz idatzitako dokumentua da, legebiltzarrak inposatuta, 1689. urtean. Dokumentuaren helburua, erregealdi absolutistan desagertutako zenbait autoritate berreskuratzea eta sendotzea zen. Parlamentuak eskubideen adierazpen bat eman zuen, Erregeak eta Parlamentuaren eginbeharrak adieraziz. Eginbehar horiek, hurrengoak dira: Erregeak ezin ditu zergak edo legeak sortu edo ezabatu, Parlamentuaren onespenez gabe; Erregeak ezin du dirurik kobratu bere erabilera pertsonalerako, Parlamentuaren onespenez gabe; Legez kanpokoa da, bake garaian armada bat erreklutatzea eta mantentzea, Parlamentuaren onespenez gabe; Parlamentuko kideen hauteskundeak askeak izan behar dira; Legebiltzarren hitzak ezin dira oztopatu edo ukatu beste inon; Legebiltzarrak maiz bildu behar dira⁶.

⁴ Magraner, Xabier. (2020). "Reino Unido: historia de una monarquía parlamentaria" *La Vanguardia*. Urtarrilaren 29a.

⁵ *Idem*

⁶ "Bill of Rights 1689". *UK Parliament*. The Bill of Rights 1689 is an iron gall ink manuscript on parchment.

Europaren kasuan, Monarkia parlamentarioaren sorrera modu desberdin batean emango da, baina helburu berdinarekin. Britain Handian, Erdi Aroan hasiera izango du eta Europaren kasuan, XVIII. mende bukaeran XIX. mendean⁷. Manuel Aragonek oso argi azaltzen duen bezala, Monarkia parlamentarioaren eboluzioa nola ematen den,⁸ esanez, Europan, Monarkia parlamentarioak bilakaera historiko baten emaitza izan dela. XIX. mendean, Erregeak zein Parlamentuak botere iturri izango dira eta eboluzioaren ondorioz, XX. mendean, Monarkia parlamentario demokratikoa gorpuztu zen, herriak botere iturri bakarra izanik⁹.

Monarkia parlamentarioak, Manuel Aragonek adierazten duen bezala, hurrengo baldintza orokor batzuk bete behar ditu¹⁰. Horien artean, Estatuburua ez da subiranoa izan behar, ez da legegilea eta ez du gobernatzen. Baldintza horiek direla eta, Estatuburuaren titulartasuna ez da aukeratzen eta oinordetzaren ondorioz lortzen da. Beraz, baldintza horien bitartez, gaur egungo Monarkia parlamentarioaren printzipio orokor batzuk direla esan dezakegu.

Agerizkoa denez, guztiz ezberdintzen da Monarkia absolutu batetik, Monarkia absolutu batean ez baitago boterearen banaketa, hau da, Erregeak botere absolutua izango du, legeak onartzerako orduan ere. Oro har, Erregeak, hiru botereak zuzenduko ditu, judiziala, exekutiboa eta legegilea. Monarkia absolutu batean, hiru botere horien banaketa ez da ematen¹¹. Erregeak, Auzitegien erabaki judizialak aldatu ditzake eta legeak aldatzeko aukera izango du. Monarkia absolutuaren adibide gisa, aurkitu dezakegu, Saudi Arabia, Brunei, Qatar, Vatikanoko Hiria, Oman, Swazilandia herrialdeetan. Monarkia parlamentarioaren adibide bezala, berriz, Espainia, Japonia, Norvegia edota Danimarka aipa ditzakegu¹².

⁷ Aragón, Manuel. (2004). "El papel del rey en la monarquía parlamentaria" *Estudios parlamentarios y de estado autonómico*, Nº1, 1-24 orr.

⁸ "Porque es cierto que en Europa continental también la monarquía parlamentaria es el producto de una evolución histórica: la que experimenta una monarquía del siglo XIX, ya constitucional, pero aún "dual" (rey y pueblo son fuente de poder) hasta convertirse en una monarquía del siglo XX, también constitucional, pero ya "parlamentaria" (el pueblo es la única fuente de poder y ese pueblo tiene como único y verdadero representante al parlamento). La monarquía parlamentaria, en Europa continental, se gestará en el seno de la monarquía constitucional del siglo XIX y en ese sentido es fruto de liberalismo, pero se perfeccionará, se consolidará, por así decir, en el siglo XX, en el seno de la democracia" (Aragón, 2004: 3)

⁹ García, Mariano. (2001). "Las monarquías parlamentarias europeas" *Monarquía y Constitución*, Nº1, 81-94 orr.

¹⁰ "El monarca no es soberano, el monarca no legisla, el monarca no gobierna. Y justamente porque el monarca carece de tales poderes es por lo que no repugna al principio democrático que el titular de la jefatura del Estado no se elija, sino que acceda al cargo por herencia, y justamente también porque el monarca carece de tales poderes es por lo que tampoco repugna al principio democrático que el jefe del Estado (el rey) sea irresponsable. Que el rey no es soberano, ni legisla ni gobierna son, pues, lo que hoy podríamos llamar con propiedad principios generales de la monarquía parlamentaria." (Aragón, 2004: 6)

¹¹ Pérez, Jorge. (2016). "Monarquía absoluta, monarquía constitucional y monarquía parlamentaria" *El cronista del estado social y democrático de derecho*, Nº60, 58-65 orr.

¹² Máxima, Julia. (2020). "Monarquía parlamentaria" *Enciclopedia historia*, Eskuragarri hemen: <https://www.caracteristicas.co/monarquia-parlamentaria/#ixzz6lPBad3HC> [Kontsulta eguna: 2021/02/03]

Oro har, Monarkia parlamentarioan, Erregeak zenbait ahalmen jasotzen ditu, tartean, Gobernuaren hautagaia proposatzeko ahalmena, ondoren, Parlamentuak onartu edo ezestatuko duelarik¹³. Honekin batera, aukera izango du Errege Familia mantentzeko beharrezkoak diren aurrekontuak egiteko eta honen segurtasun kideak izendatzeko. Beraz, Erregeak jasotzen dituen ahalmenak, Errege Familiaren mantentze ekonomikoa, bere segurtasuna bermatu edota immunitatearen ahalmenak izango dira¹⁴.

3.2 Erregearen prerrogatibak horrelako sistemetan

Prerrogatibak hurrengo definizioa hartzen du RAEren arabera: *“Norbaiti hori gozatzeko ematen zaion pribilegioa da, grazia edo salbuespena, aldizka duintasun, enplegu edo kargu bati erantsita dagoena”*. Beraz, legeak Erregeari esleitzen dizkion ahalmenak direla esan dezakegu, bere zereginak egikaritu ahal izateko.

Ahalmen horiek, Erregeari modu eskusibo batean esleitzen zaizkio. Erregearen ahalmenak, Parlamentuarengatik indargabetuak izan daitezke, Britain Handiaren kasua bezalaxe, prozedura desberdin bat izanik. Koroari dagozkion botereak, Errege prerrogatiba bezala ezagutzen da eta horien artean, Erregeak tratatuak sinatzeko ahalmena aurkitu dezakegu¹⁵. Britain Handian, Monarkia konstituzionala izanik, Erregeak ez ditu prerrogatibak erabiltzen, baizik eta bere aholkupean dauden ministroek egikaritzen dituzte. Beraz, Britain Handiaren kasuan ez da beharrezkoa Parlamentuaren onspena Errege prerrogatiba bat egikaritzeko¹⁶.

Orokorrean, Erregeak bere funtzioak bete ahal izateko, zenbait ahalmen esleitzen zaizkio. Ahalmen horiek, moderatzaile figuraren ahalmena,¹⁷ Erregeak hauteskundeak deitzeko ahalmena edota legeen onspena eta promulgazioa egiteko ahalmena izango dira, Maria Isabel Abellán azaltzen duen bezala¹⁸.

¹³ Torres del Moral, Antonio. (2018). “Cuarenta años de monarquía parlamentaria” *Revista de derecho político*, N°101, 33-64 orr.

¹⁴ Calvo, Luís. (2016). “Prerrogativas de la Corona Británica” *Revista de estudios políticos*, N°35-36, 140-149 orr.

¹⁵ *Idem*

¹⁶ *Idem*

¹⁷ García, Javier. (2014). “Las funciones del rey en la monarquía parlamentaria” *El Cronista del Estado Social y Democrático de Derecho*, N°47, 66-78 orr.

¹⁸ Abellán, María Isabel (2003) “Sinopsis artículo 56” *congreso.es. [On-line]*, eskuragarri hemen: <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=56&tipo=2> [Kontsulta eguna: 2021/02/10]

Erregearen beste prerrogatiba bat grazi eskubidea izango da. Ahalmen honek, aukera ematen dio Erregeari zigor baten barkamena emateko. Erregearen prerrogatiba formal bat bezala kontsideratu dezakegu, hau da, lege bat beharrezkoa da eskubide hori egikaritu ahal izateko.

Beraz, 1/1988 urtarrilaren 14ko legeari xedapen bat egin behar diogu, adierazten duelako ze baldintzak beharrezkoak diren grazi eskubidea emateko. Badaude salbuespen batzuk, Espainiar Konstituzioak adierazten duena bere 102.3 artikuluan¹⁹, non zenbait kasutan ezin izango dela inola ere ez grazi eskubidea aplikatu. Kasu horiek dira, Lehendakariaren eta Gobernuko beste kideen erantzukizun kriminala dagoenean, kasu horietan, Auzitegi Gorenak auzipetuko ditu eta ezin izango da grazi eskubidea aplikatu. Bestalde, salakuntza, traizioz edo Estatuko Segurtasunaren aurkako delitua izango balitz, bakar-bakarrik planteatu daitezke grazi eskubidea Biltzarreko kideen laugarren zatiaren iniziatibaz eta bere gehiengo absolutuaren onarpenaz.

Aurrekoaz gain, Erregearen erantzukizun eza eta bortxaezintasuna aipatu behar dira. Kasu honetan, bortxaezintasunaren kontzeptua hurrengo definizioa hartzen du Entziklopedia juridikoak: *“Konstituzio Monarkikoen prerrogatiba pertsonala da, Erregearen alde deklaritzen dutena, erantzukizunetik salbuetsiz”* Ahalmen honek, Monarkia zein errepublika erregimen politikoetan ikus dezakegu. Monarkiaren kasuan, Erregeari aplikatzen zaion erantzukizun eza absolutua izango da, eremu penalean zein zibilean izanik²⁰. Beraz, bortxaezintasun absolutuak adierazten du Erregeak eremu pertsonalean edo bere karguan egindako ekintzaz salbuetsita egongo dela.

Konstituzio Monarkiko guztiak, Espainiaren zein Europar bestelako Estaturen kasuan, Erregearen erantzukizun eza absolutua ere ezartzen dute, Norvegiaren kasuan, salbuespen txiki bat izan ezik. Bortxaezintasun eta erantzukizun ezak sortzen dituen ondorioak, Erregeari esleitzen zaizkio, orokorrean, Erregeak ez duelako gaizki jokatzeko²¹. Europa mailan, Gobernuaren eta Parlamentuaren kide gehienak, nolabaiteko aforamendu neurriren bat dute auzitegietan eta bere jardura politikoa eta legegilearekin lotura zuzena duena²². Aforamendu

¹⁹ Espainiar Konstituzioaren 102 artikulua: “ 3. *Erret-grazi eskubidea artikulua hontako balizko batetarako ere ezin da aplikagarria izan.*”

²⁰ Artola, Miguel. (1991). “La monarquía parlamentaria” *Ayer*, N°1, 105-124 orr.

²¹ “*Idem*”

²² EFE, Redacción Central, (2018). “Los países de la UE difieren sobre el aforamiento de los políticos” *ElDiario.es*. Irailaren 18a.

honen ahalmena, zuzenbide konstituzionaleko bestelako herrialdetan aurkitu dezakegu, esate baterako, Grezia, Herberak, Bielorrusia edo Errumania²³.

Europaren kasuan, beste herrialdeekin konparaketa eginez, Espainiar Estatuan aforatu askoz gehiago daude bere kargu politikoa dela eta, beste herrialdeetan baino. Gehienezko aforatu horien kasua, berdintasun arazo bat suposatu dezake gizartearen barnean, hala adierazi duen bezala, María Luz Martínez-ek²⁴. Espainiaren kasua aipatzen dugu, Konstituzioaren 71 artikulua²⁵ adierazten duelako nortzuk izango dituzten aforatzeko ahalmena eta ze kargua izan behar duten aforamendu hori lortzeko. Orokorrean, diputatuak, senatariak, Gobernuoko Presidenteak eta bestelako Gobernu kideak izan daitezke aforatuak²⁶.

²³ lainformación.com (2019). *Qué es ser aforado y en qué países existe este privilegio*. Eskuragarri hemen: <https://www.lainformacion.com/practicopedia/que-es-ser-aforado-y-en-que-paises-existe-este-privilegio/6509675/?autoref=true> [Kontsulta eguna: 2021/02/09]

²⁴ «puede significar una afectación del principio de igualdad procesal, al extenderse más allá de los casos previstos por la Constitución y vinculados al principio de inmunidad» y resalta «la necesidad de su limitación ad personam» (Martínez, 2014: 440)

²⁵ Espainiar Konstituzioaren 71 artikulua: “1. Diputatu eta Senatoreek beraien funtzio ihardunketetan agertutako iritziengatik ukiezintasuna gozatuko dute. 2. Era berean Diputatu eta Senatoreek beraien agintaritza garaian inmutateaz gozatuko dute eta delitu agirikoagatik bakar-bakarrik atxilotuak izan daitezke. Ezin zaie errurik bota ez eta prozesatu ere dagozkien Ganbaren alde aurretikako autorizapenik gabe. 3. Diputatu eta Senatuaren aurkako auziak Goren Auzitegiko zigor sailari dagokizkio. 4. Diputatu eta Senatariak beraien dagozkien Ganbarek finkaturiko soldata jasoko dute.”

²⁶ Martínez, María Luz. (2015) “El aforamiento de los cargos públicos. Derecho español y derecho comparado.” *Teoría y realidad constitucional*, Nº35, 437-478 orr.

4. Espainiar Monarkiaren erregimen juridikoa Konstituzio aurretik

Gaur egungo Monarkiaren sorrera azaltzeko, erregimen frankistaren garaiari aipamena egin beharko diogu. Francisco Francoren erregimena 1939-1975. urteren bitartean iraun zuen eta bere heriotzaren ondorioz, Franco-k Juan Karlos I. Erregea izendatu zuen, erreferenduma egin barik.

Erregea aukeratzeko, 1947. urteko Estatuko Buruzagitzaren Ondorengotza Legea martxan jarri zuen Franco-k. Momentu hartan, Espainiako Estatuburua zen eta berak aukeratu egingo zuela bere ondorengoa adierazi zuen, Erregearen tituluaren ondorengoa izendatuz. Kasu honetan, Espainiako Gorteen, berretsi zuten Franco-k adierazi zuen eskubidea, berak aukeratutako pertsona ondorengoa izateko. Frankismoaren garaian, Estatuko botereek antolatu zituzten zazpi oinarrizko legeetatik, bosgarren oinarrizko legeak²⁷, 1947. urteko Estatuko Buruzagitzaren Ondorengotzaren legea izango zela. Lege honek, adierazten zuen Franco-k ahalmena zuela nahi zuen ondorengoa aukeratzeko. Lege hau berresteko, Franco-k erreferendum bat deitu zuen, non botoa derrigorrezkoa zen. Erreferendum horren emaitza %93 bataz besteko aldeko botoak izan zen²⁸.

Lege honen bitartez Franco-k botere guztia zuen bere ondorengoa aukeratu ahal izateko, legeak hala adierazten zuen bezala:²⁹ *“Edozein unetan, Estatuburuak Gorteei proposatu ahalko die, bere garaian deitua izan zen pertsona oinorde izateko, Errege edo Erregeorde gisa, lege honek eskatutako baldintzetan.”* Bestalde, lege honen hamahirugarren atalean³⁰ adierazten zuen, Franco-k eskubide zuela Gorte Orokorrei ondorengotzaren bazterketa proposatzeko.

Ondorengotza hori emateko, Franco-k ondorengotza ordena salto egin zuen, Juan Karlos I. ondorengoa hautatuz, Juan de Borbon ondorengoari salto eginez. Horrez gain, Franco-k 1969. urtean, bere erabakia ofiziala egin zuen, Juan Karlos I. Estatuburuaren ondorengo bezala

²⁷ Ley de Sucesión en la Jefatura del Estado, 9 de junio de 1947, B.O.E., nº 160, pp. 3272-3273

²⁸ Dmax (2020/08/20). *Así sucedió el rey Juan Carlos I de Borbón a Franco* [On-line bideo fitxategia] eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=Aa8PiF3Ph6w&t=242s> [Kontsulta eguna: 2021/02/12]

²⁹ Ley de Sucesión en la Jefatura del Estado, 9 de junio de 1947, B.O.E., nº 160, pp. 3272-3273

³⁰ Ley de Sucesión en la Jefatura del Estado, 9 de junio de 1947, B.O.E., nº160, 13 art: *“El Jefe del Estado, oyendo al Consejo del Reino, podrá proponer a las Cortes queden excluidas aquellas personas reales carentes de la capacidad necesaria para gobernar o que, por su desvío notorio de los principios fundamentales del Estado o por sus actos, merezcan perder los derechos de sucesión establecidos en esta ley”*

izendatuz³¹. Erabaki hori, Gorteetan bozkatu zen, 19 kontrako botoekin, 9 boto zuriekin eta 491 aldeko botoekin³². Francoren heriotzaren ondoren, 1975. urtean, Juan Karlos I. Espainiako Erregea proklamatu zuten eta honek bere karguari zin egin zuen, urte horretako azaroaren 22-an. Behin Juan Karlos I. Erregea izendatua,³³ Juan de Borbon, Koroaren eskubideen abdikazioa eman zuen, 1977-ko maiatzaren 14-ean, bere eskubide dinastikoei uko eginez.

Juan Karlos I.-ak 1977. urtean diskurtso bat eman zuen, “*Monarkiaren gorreak*” bezala deitutakoa. Erregeak adierazi zuen³⁴, Monarka Konstituzional bezala hitz egiten zuela, erakundearen izenean, berari ez zegokiola zeregin zehatzen programa proposatzea ezta horiek behar bezala gauzatzeko orientabideak eskaintzea, hori botere politikoen zeregina zelako. Hala ere, azpimarratu zuen Koroaren funtzio integratzailea eta bere botere arbitrara, Gorte Orokorrekiko harreman garrantzi berezia hartzen zuela. Kasuan, Kongresuari eta Senatuari eginkizun bikoitza zegokiola adierazi zuen: Alde batetik, demokraziaren zehaztapena izatea, eta beste alde batetik, demokrazia bera sortzea, elkarbizitzarako modu gisa eta gizarte aske batean sistema eraginkor bat sortuz, bere aldarrikapenak formulatzeko, eraldatzeko eta justiziak aurrera egiteko³⁵.

Urte honetan, 1/1977 erreforma politikoaren³⁶ legea onartu zen, erregimen frankistaren estruktura ezabatuz. Lege erreforma honen onespena 1976ko azaroaren 18-an eman zen eta

³¹ Dmax (2020/08/20). *Así sucedió el rey Juan Carlos I de Borbón a Franco* [On-line bideo fitxategia] eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=Aa8PiF3Ph6w&t=242s> [Kontsulta eguna: 2021/03/08].

³² *Idem*

³³ Ibáñez, Jose Luis (2019). “La Transición española (transcurrió entre 1975 y 1982)” *Periodistas en español.com* [On-line] Eskuragarri hemen: <https://periodistas-es.com/la-transicion-espanola-transcurrio-entre-1975-y-1982-133364> [Kontsulta eguna: 2021/02/12]

³⁴ “*Como Monarca constitucional que hablo en nombre de la Institución a que me debo, no me incumbe proponerles un programa de tareas concretas que únicamente a ustedes y al Gobierno corresponde decidir; ni ofrecer orientaciones para llevarlas a buen término, pues éste es cometido de los poderes políticos. Pero sí quiero señalar la función integradora de la Corona y su poder arbitral, que cobran un especial relieve en sus relaciones con las Cortes. Los aspectos de esta relación habrá que desarrollarlos y concretarlos. Al Congreso y al Senado, que en esta jornada comienzan sus trabajos, les corresponde un doble papel: el de ser la primera concreción de la democracia y el de crear esa misma democracia como modo de convivencia y como sistema eficaz para una sociedad, libre y moderna, que permita la formulación de sus reivindicaciones, su transformación y el progreso de la justicia.*” (Diario de Sesiones de las Cortes, 22 de julio 1977, núm. 3, p. 39). Honen inguruan, vid. Juan Ferrando Badía, cit., 33 orr.

³⁵ Colomer, Antonio. (1978). “El origen de la Monarquía parlamentaria en España y el Anteproyecto constitucional” *Revista de estudios políticos*, Nº3, 101-120 orr.

³⁶ Contreras, Manuel. (2015). “La ley para la reforma política: Memoria y legitimidad en los inicios de la transición española a la democracia” *Revista de estudios políticos*, Nº168, 77-114 orr.

erreferendum baten deia egin zen, %94 botoen babesarekin³⁷. Lege honen ondorio zuzena 1977. ekainean ospatutako hauteskunde orokorrak izan zen. Lege honen lehenengo artikulua adierazten zuen, Gorte Orokorrak legeak egiteko eta onartzeko ahalmena izango dutela eta Erregeak horiek zigortu eta aldarrikatzeko ahalmena izango duela. Horrez gain, Erregeak zuzenean jarri ahal izango dio herriari interes nazionaleko aukera politiko bat, Konstituzio izaerakoa izan edo ez, erreferendum bidez erabaki behar duena. Erreferendum horren emaitzak Estatuko organo guztiei ezarriko zaizkie. Erreforma honek, Adolfo Suarezek adierazi zuen, ezin zela askatasun politikoaren benetako adierazpenik eman, manifestazio, espresio edota adierazpen eskubiderik gabe. Kasuan, Espainiako herriak hitza zuela eta haiek aukeratu beharko zutela hauteskudearen bitartez zer nahi zuten³⁸.

³⁷ Mesas, Alberto (2016). “Las cortes franquistas se hacen el harakiri” *La Vanguardia*. Azaroaren 18a.

³⁸ Contreras, Manuel. (2015). “La ley...”, *op. cit.*, 77-114 orr.

5. Monarkiaren erregimen juridikoa Espainiar Konstituzioan

Behin Francoren heriotza emanda eta Juan Karlos I. Erregea izendatuta, 1978. urtean Espainiako Konstituzioa onartu egin zen. Espainiako Konstituzioa, Estatuaren lege gorena da, Espainiako trantsizioaren ondorio garrantzitsuena izanik³⁹. Erreforma Politikoaren Legearen bitartez, Francoren erregimenaren oinarriko legeak ordezkatu ziren. Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 6-ean onartu zen erreferendum bitartez. Ondoren, Juan Karlos I. Erregeak Konstituzioa berretsi zuen, abenduaren 27-an eta 29-an indarrean sartu zen, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz⁴⁰.

Bertan, erregimen frankista batetik, Monarkia konstituzional eta parlamentario batera aldatu zen. Konstituzioan zenbait printzipioen aipamena egin zen, berdintasun, justizia, politika-aniztasun eta askatasun baloreei, hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioaren lehenengo artikulua⁴¹ adierazten duen bezala.

5.1 Bortxaezintasuna, erantzukizun eza eta aforamendua

Beraz, Juan Karlos I. Erregea izendaturik, Konstituzioak zenbait ahalmen esleitzen dizkio bere kargua betetzen ari den bitartean. Ahalmen horien artean, aurkitu dezakegu bortxaezintasuna, erantzukizun eza eta aforamendua.

Bortxaezintasunak, Erregeari auzipetzeaz salbuesten dio, bai organo judicial edo administratibo batengatik⁴². Honek esan nahi du, Erregearen ekintza guztiak salbuetsita daudela, bai bere karguari atxikitzen zaizkion ekintzak, bai bere eremu pertsonalean burututako ekintzak. Beraz, Erregearen bortxaezintasuna, absolutua izango da eta hala adierazten du Espainiako Konstituzioaren 56.3⁴³ artikulua, esanez, Erregearen pertsona

³⁹ Tomás, Francisco. (1980). “La constitución de 1978 y la historia del constitucionalismo español” *Anuario de historia del derecho español*, N°50, 721-752 orr.

⁴⁰ Varela, Joaquín. (2003). “La constitución de 1978 en la historia constitucional española” *Revista española de derecho constitucional*, N°69, 31-67 orr.

⁴¹ Espainiako Konstituzioaren 1.1 artikulua: “*España Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko batean eraikitzen da, eta beraren balore nagusi bezala, lege araugintza, askatasuna, justizia, berdintasuna eta politik aniztasuna.*”

⁴² Abellán, María Isabel (2003) “Sinopsis artículo 56” *congreso.es. [On-line]*, eskuragarri hemen: <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=56&tipo=2> [Kontsulta eguna: 2021/04/19]

⁴³ Espainiako Konstituzioaren 56.3 artikulua: “*Erregearen pertsona ukiezinekoa da eta ez du inolako erantzukizunik. Haren ekintzak 64. artikuluan ezarritako eran berretsiturik daude beti, aipaturiko berretsipenik gabe baliapenik ez dute, 65. 2. artikuluan erabakitzen dena izan ezik*”

ukiezinekoa izango dela eta ez duela inolako erantzukizunik izango⁴⁴. Honek esan nahi du, Erregeak burututako ekintza guztiak salbuetsita egongo direla, bai eremu pribatuan zein publikoan egindakoak. Horrez gain, azaltzen du, haren ekintzak 64⁴⁵ artikuluan ezarritako eran berretsiturik egongo direla beti.

Orokorrean, bortxaezintasuna eta erantzukizuna ezaren kontzeptuak lotura izan arren, desberdindu behar dugu bien artean. Doktrinak, bortxaezintasunaren eta erantzukizun ezaren kontzeptuak, sinonimo bezala hartzen ditu. Aldiz, Paloma Biglino Campos adierazi zuen, bortxaezintasunak, erantzukizun ezaren baino esanahi zabalago bat duela⁴⁶. Beraz, bortxaezintasunak adierazten duena da, eremu penalean ez duela biderik eta ezin dela kriminalki jarraitu pertsona horri. Oro har, eremu zibilean, adierazten du ezin dela Erregeari demandatu ohiko jurisdikzioaren aurrean. Aldiz, erantzukizun ezak, adierazten du Estatuburuak juridikoki salbuetsita egoteaz gain, politikoki ere salbuetsita egongo dela. Bortxaezintasunak, Erregearen kontra bideratzen diren akzio judizialak hartzen ditu eta erantzukizun ezak, Erregearen kontra politikoki bideratzen diren akzioak hartzen ditu.

Hortaz, Erregeak ez du erantzukizunik izango, kriminalki salbuetsita egongo da eta ezin izango da demandatu bere mandatua betetzen ari den bitartean. Estatu demokratikoetan ondorioztatzen dena da, boterea dagoenean, erantzukizuna dagoela, beraz, Erregeak ez duenez botererik, ez du erantzukizunik izango. Bestetik, Britaniar printzipio bat adierazten duen bezala, Erregeak ezin du gaizki jokatu, eta honen ondorioz ez du erantzukizunik izango⁴⁷. Erregeak dagozkion zergak ordaintzen ez baditu, abiadura muga gainditzen baditu edo auzokide baten lursaila hondatu egiten baditu, Erregearen etxea erantzule izango da. Hau da, Erregearen etxea, administrazio bat bezala kontsideratzen da eta administrazio honek izango da erantzungo duena⁴⁸.

⁴⁴ Abellán, María Isabel (2003) “Sinopsis artículo 56” *congreso.es*. [On-line], eskuragarri hemen: <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=56&tipo=2> [Kontsulta eguna: 2021/04/19]

⁴⁵ Espainiako Konstituzioaren 64 artikulua: “1. Erregearen ekintzak Gobernu Lehendakariak berretsiak izango dira eta, honen ezean, dagokion Ministroak. Gobernuko Lehendakariaren proposatze eta izendatzea eta 99. artikuluan aurreikusiriko deuseztatzea Biltzar Lehendakariak berretsiak izango dira. 2. Erregearen ekintzen arduradunak berresten dutenak izango dira”

⁴⁶ Abellán, María Isabel (2003) “Sinopsis artículo 56” *congreso.es*. [On-line], eskuragarri hemen: <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=56&tipo=2> [Kontsulta eguna: 2021/04/21]

⁴⁷ Torres del Moral, Antonio. (2012). “Inviolabilidad del rey”. *Diario del derecho*. [On-line], eskuragarri hemen: https://www.iustel.com/diario_del_derecho/noticia.asp?ref_iustel=1200576 [Kontsulta eguna: 2021/04/22]

⁴⁸ *Idem*

Aldiz, Erregeak zenbait egoeretan ez du bortxaezintasunik izango. Nazioarteko Zigor Auzitegiaren estatutuak adierazten du, Erregeak ez duela bortxaezintasun ahalmenik izango, gizadiaren aurkako krimenak egiten dituenean, genozidioa, eraso edota gerra krimenak burutzen dituenean. Estatutu hau, Espainiaren Estatuak berretsi⁴⁹ zuen. Beraz, Erregearen ahalmenak ez dira oztoporik izango Nazioarteko Auzitegiak auzipetzeko, ekintza horiek burutzen baldin badira⁵⁰.

Hala ere, ez dago inor Erregearen gaintetik, beraz, inork ez du bere lana fiskalizatzen, hierarkia harremanik ez dagoelako⁵¹. Erregeak erantzukizunik ez izateak, mahai gainean eztabaida bat jarri du, Erregeak bortxatzaile edo bahitzaile izatekotan, bortxaezintasun edo erantzukizun eza ahalmenaren aplikazioa izango bazuen edo ez⁵². Beraz, bortxaezintasunak zein erantzukizun ezak, salbuesten dio Erregeari ez bakarrik eremu juridikotik, baizik eta eremu politikotik ere. Honen ondorioz, Erregeak bortxatzaile edo bahitzaile izango balitz, ez zuen erantzukizunik izango. Bertan, Oscar Alzagak adierazten duen bezala, hori gertatuko balitz, ospe txarraren aurrean egongo ginateke eta erakunde Monarkikoaren hondamendiaren aurrean⁵³. Errege Familiaren kasuan, delitu bat burutu ez gero, ez da erantzukizun ezarik aplikatuko eta auzipetuak izango dira⁵⁴.

Horrez gain, aforamendua ere aipatu behar dugu. Espainiaren kasuan, arduradun politikoei aforamenduaren prerrogatiba jaso egiten dute. Honek suposatzen du salbuespen bat Espainiar Konstituzioaren 14 artikuluan⁵⁵, adierazten duena Espainiar guztiak berdina garela legearen aurrean, baina ahalmen honek benetan bilatzen duena, Estatuko erakunde funtzionamendu erregularra bermatzea da⁵⁶. 2014 urtean, Kongresuak onetsi zuen, 4/2014-ko Lege Organikoa.

⁴⁹EAO, zenbakia. 126, 2002ko maiatzaren 27a.

⁵⁰ Torres del Moral, Antonio. (2012). "Inviolabilidad del rey". *Diario del derecho* [On-line], eskuragarri hemen: https://www.iustel.com/diario_del_derecho/noticia.asp?ref_iustel=1200576 [Kontsulta eguna: 2021/04/22]

⁵¹ Alzaga, Oscar. (1997). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madrid: Editoriales de derecho reunidas.

⁵² Garcia, Samuel. (2011). "¿Y si el rey mata a alguien? Derecho penal y monarquía" *Wordpress.com* [On-line], Eskuragarri hemen: <https://sagara1977.wordpress.com/2011/12/28/y-si-el-rey-mata-a-alguien-derecho-penal-y-monarquia/> [Kontsulta eguna: 2021/02/09].

⁵³ Abellán, María Isabel (2003) "Sinopsis artículo 56" *congreso.es*. [On-line], eskuragarri hemen: <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=56&tipo=2> [Kontsulta eguna: 2021/04/22]

⁵⁴ Rodríguez, Luis. (1982). "La inviolabilidad del rey en la Constitución" *La ley*, Nº1, 864-866 orr

⁵⁵ Espainiako Konstituzioaren 14 artikulua: "Espainiak legearen arabera berdina dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik."

⁵⁶ Martínez, María Luz. (2015). "El aforamiento...", *op. cit.*, 437-478 orr.

Bertan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 55 bis artikulua⁵⁷, xedatzen zuen Errege Familiak aforatuak izango zirela, Erreginak, Asturiasko Printzeak zein abdikatu egiten duen Errege edo Erreginak. Orduan, horien aurka bideratutako akzio zibil eta penalak Auzitegi Gorenak auzipetzeaz arduratuko zen.

Oro har, aforatua izateak esan nahi du, pertsona batzuek ezin direla ohiko jurisdikzioko epaitegietatik auzipetuak izan, bere egoera pertsonala eta bere kargua dela eta.⁵⁸ Beraz, aforamenduak ez du erantzukizunetik salbuesten, baizik eta, goi mailako auzitegi batek bere kasua auzipetzeko ahalmena izango duela adierazten du. Aforatu batek burututako delituez, goi mailako auzitegi batek epaitu egingo ditu, hain zuzen ere, Auzitegi Gorenak, Justizia Auzitegi Nagusiak edo Probintzia Auzitegiak izanik⁵⁹.

Beraz, Erregeak ere abdikatzeko duen momentutik, bere funtzioak egiteari uzten dio eta aforatua izatera pasatuko da, horrela adierazten duelako lehen aipatu dugun 4/2014 Lege Organikoa⁶⁰. Kasu honetan, jurisprudenzia aipatzea komenigarria da, kontuan izateko, Auzitegi Gorenak auzipetu egingo duela diputatu, senatariak edo bestelako pertsonak⁶¹. Kontuan izan behar dugu, Estaturuaren kasuan, bortxaezina eta erantzukizun eza izango duela bere mandatua betetzen duen bitartean, baina behin hori amaituta, bere ahalmenak galtzen ditu eta aforatua izatera pasatzen da, auzipetzeko aukera egonik goi mailako jurisdikzioaren bitartez. Diputatuen eta senatarien kasuan, behin mandatua amaitzen denean, aforamenduaren eskubidea amaituko zaie, hala adierazten duen bezala, Kongresuaren

⁵⁷ Ley Orgánica 4/2014, de 11 de julio, complementaria de la Ley de racionalización del sector público y otras medidas de reforma administrativa por la que se modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

⁵⁸ “Con él, se atribuye la inculpación, procesamiento, juicio y adopción de medidas procesales pertinentes sobre determinados asuntos jurídicos que afectan a determinadas personas que desempeñan funciones consideradas de gran responsabilidad y relevancia a un órgano diferente de aquél que de ordinario ha de resolver dichos asuntos. Es una prerrogativa, como ha afirmado el Tribunal Constitucional, que no vulnera, sino que incide en el derecho fundamental al juez predeterminado por la ley del artículo 24.2 de la Constitución española en la medida en que a su través se predetermina normativamente el órgano competente para conocer determinadas causas contra determinadas personas, causas que no serían de su competencia atendiendo al derecho procesal común”. (Martínez, 2014: 438)

⁵⁹ Andrey, Carmen (2018). “Diferencias entre inviolabilidad, inmunidad y aforamiento. Andrey Ferreiro abogados. [On-line], Eskuragarri hemen: <https://andreyferreiroabogados.com/2018/07/26/diferencias-entre-inviolabilidad-inmunidad-y-aforamiento/> [Kontsulta eguna: 2021/02/09]

⁶⁰ Ley Orgánica 4/2014, de 11 de julio, complementaria de la Ley de racionalización del sector público y otras medidas de reforma administrativa por la que se modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

⁶¹ STS 21019/2019

Erreklamenduaren 11 artikulua⁶², 1982ko otsailaren 24-ean sententzia judizial bidez argitaratzea erabaki zenean.

Hala ere, Espainiaren kasuan ikus dezakegu hainbat adibide non prerrogatiba horien abusua ematen den, neurririk gabe erabiliz. Aforamendua suposatzen du, babestutako pertsona ez dela auzitegi arruntaren bitartez auzipetua izango. Hori dela eta, Auzitegi Gorenak bere kasua ezagutu eta epaituko du. Prerrogatiba honen eztabaida ez da berria, bereziki zentratu izan da aforatuen zenbakian. Eztabaida honen mamia sortu zen, 1995. urtean, momentu hartan Gobernuan zegoen alderdi politikoak planteatu zuelako Estatuko Idazkariak aforatuak izatea eta Gobernuaren kideen aforamendua luzatzea, behin bere kargua utziz gero. Gobernuak egindako saiakera zapuztu zen eta prerrogatiba honen existentziaz, mugaz eta erabileraz eztabaida handia sortu zuen⁶³.

Estatuburuaren kasuan, bere kargua betetzen ari den bitartean, egindako ekintzaz salbuetsita egongo da bortxaezina delako. Espainiari dagokionez, Juan Karlos I. Erregeak abdikatu zuenean, Errege Familiaren zenbait kide aforatua izatera pasatu ziren, Botere Judizialaren Lege Organiko baten aldaketaren bitartez eginik⁶⁴. Doktrinak adierazten du, aforamendua ez duela legezko epailearen printzipioa urratzen. Aldiz, adierazten du Espainiaren kasuan, 250.000 aforatu inguru osatzen dutela, ikuspegi konstituzional eta sozial batetik, onartezina dena⁶⁵. Aforatu horien gehiengoa, polizia, guardia zibilak eta militarrek dira, 213.000 kide izanik. Geratzen diren aforatu kideak, Gobernuko Instituzioen kideak, politikoak, fiskalak, epaileak izango dira. Polizia eta guardia zibilen kasuan, foru babes txikiago bat izango dute. Bertan, Probintzia Auzitegiak kasua ezagutuko duen tribunalak izango da, beti ere, haien funtzioetan burututako delituaz⁶⁶.

5.2 Erregearen funtzioak

Espainiako Konstituzioak bere 1.3 artikuluan⁶⁷ adierazten duen bezala, Espainiar Estatuaren

⁶² Kongresuaren erreklamenduaren 11 artikulua: “*Durante el período de su mandato, los Diputados gozarán asimismo de inmunidad*”

⁶³ *Idem*

⁶⁴ EAO, 169 zenbakia. 2014ko uztailaren 12a.

⁶⁵ Montero, Juan; Gómez, Juan Luis eta Barona, Silvia. (2016). *Derecho jurisdiccional*. Balentzia: Tirant lo Blanch.

⁶⁶ Bravo, Laura. (2017). “Los 250.000 aforados que hay en España, quiénes son y cuáles son sus prerrogativas” *Europa press*. Martxoak 25a.

⁶⁷ Espainiar Konstituzioaren 1.3 artikulua: “*Estatu Espainolaren politika era Monarkia parlamentarioa da.*”

forma politikoa, Monarkia parlamentarioa da. Azpimarratu behar dugu, Konstituzioaren aurreproiektuak indarrean zegoen bertsioa hartu zuela eta ez zuela inolako aldaketarik izan. Eztabaidatua izan zen gaia da, garai hartan, Monarkiaren sistema politikoa onartzekoa edo baztertzekoa. Eztabaida politikoan, Kongresuan bi diputatuk bakarrik aurkeztu zuten Monarkiaren aurkako desadostasuna. Horietako batek, errepublika demokratikoa eta parlamentarioa defendatzen zuen, beti ere, Erregearen errespetu zintzo eta sakonean⁶⁸.

Beraz, Monarkia parlamentarioa, Estatu Monarkikoaren buruzagitzak hartzen duen figura da, sinbolo demokratikoaren sistema politikoa izanik. Hori dela eta, gogoratu behar dugu Britaniaren aforismo zaharra, adierazten zuena, Erregeak Erregina dela, baina ez duela gobernatzen. Hori, Espainiako Konstituzioan definitzen da, Gobernuak, Diputatuen Kongresuaren konfiantza behar duela eta honen aurrean solidarioki erantzuten duela. Horrez gain, adierazten du Erregeak Estaturua dela eta haren egintzak Gobernuko Presidenteak edo Ministroek berretsiko dituztela, eta horiek izango direla egintza horien erantzuleak⁶⁹.

Monarkia eredu honetan, Erregearen funtzioak Estatuaren botere guztiekin erlazionatzen zaizkio, baina, botere bat ere ez egikaritu gabe,⁷⁰ Erregearen figura sinboliko bezala hartuz⁷¹. Hau da, Erregeak botere legegilearekin erlazionatzen dugu. Bertan, aukera izango du, Gorte Orokorrek onartutako legeak berronesteko, baina beto eskubiderik gabe. Beraz, Erregearen figura, botere gabeko organo bat dela esan dezakegu, botere propiorik ez duelako⁷². Alegia, funtzio ezberdinak betetzen ditu, baina ez dauka, berez, botererik.

Estatuaren egitura kontuan hartuz, ordezkari gorena Erregea izango da, Estaturuaren funtzioak egiten dituen eta Gobernuaren eta Parlamentuaren kontrolpean dagoena. Monarkia parlamentarioaren ezaugarri nabarmenen artean, azaldu dezakegu, Erregeak, boterea modu partzial batean izango duela, Parlamentuarengatik mugatuta dagoelako⁷³. Hala ere, ez du botere errealik izango, baizik eta Konstituzioak emandako funtzioak beteko ditu. Beraz,

⁶⁸ Delgado-Iribarren, Manuel (2005) "Sinopsis artículo 1" *congreso.es*. [On-line], eskuragarri hemen: <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=1&tipo=2> [Kontsulta eguna: 2021/04/27]

⁶⁹ *Idem*

⁷⁰ Aragón, Manuel. (2004). "El papel del rey...", *op. cit.*, 1-24 orr.

⁷¹ Urias, Joaquín. (2019). "Crisis institucional y democracia" Madril: Tirant lo blanch.

⁷² Aragón, Manuel (1990). *Dos estudios sobre la monarquía parlamentaria en la constitución española*. Madril: Tirant Editorial

⁷³ Díaz, Francisco Javier. (2004). "La corona desde la perspectiva jurídico-constitucional" *Revista española de derecho constitucional*, N°71, 397-412 orr.

esaten den bezala, “*Erregeak erreinatzen du, baina ez du gobernatzen*”⁷⁴ Gobernuaren eta Parlamentuaren artean burutzen delako funtzio hori.⁷⁵ Honekin batera, Parlamentuak emandako legeak zein dekretuak, Erregearen aldetik aldarrikatuak eta berronetsiak izango dira⁷⁶.

1978ko Espainiako Konstituzioak Erregearen figurari zenbait ahalmen esleitzen dizkio. Espainiar Konstituzioaren 56 artikulua⁷⁷ xedatzen duen bezala, Erregeak Estatuaren oinarrietako bat izango da, eta arbitro, moderatzaile, Nazioarteko harremanetan Estatu Espainoleko ordezkari izango da. Horrez gain, Erregea, azaldu dugun bezala bortxaezina da eta ez du inolako erantzukizunik izango, bere mandatua betetzen ari den bitartean, arlo pribatuan zein publikoan egindako egitateez.

Beraz, Espainiako Konstituzioaren 62 artikulua⁷⁸ adierazten duen bezala, Erregeak, legeak onesteko eta promulgatzeko aukera izango du, Gorte Orokorrak bilerarazteko eta deuseztatzeko, erreferenduma deitzeko aukera Konstituzioarekin bat ikusitako kasuetan, Gobernuko lehendakariarako hautagarria den pertsona proposatzeko aukera eta beharrezkoa denean, izendatu eta haren funtzioei amaiera emateko Konstituzioak aurreikusten dituen kasuetan, edota Gobernuko taldekideek izendatzeko edo banatzeko aukera izango du, beti ere, lehendakariaren proposamenez.

⁷⁴ Fernández, Tomás y Tamaro, Elena. (2004). “Louis Adolphe Thiers” *Biografías y vidas, La enciclopedia biográfica en línea*. [On-line] Eskuragarri hemen: <https://www.biografiasyvidas.com/biografia/t/thiers.htm> [Kontsulta eguna: 2021/03/12]

⁷⁵ Aragón, Manuel. (2004). “El papel del rey...”, *op. cit.*, 1-24 orr.

⁷⁶ Ferrando, Juan (1975). “Teoría de la instauración monárquica en España.” *Revista de estudios políticos*, Nº203, 245-279 orr.

⁷⁷ Espainiako Konstituzioaren 56 artikulua: “1. Erregea Estatu burua da, haren batasun eta iraupenaren sinboloa, erakundeetako funtzionamendu erregularra arbitratu eta moderatzen du, nazioarteko harremanetan Estatu espainoleko ordezkari izango da, batez ere bere komunitate historikoko nazioetan, eta konstituzio eta legeak espreski ematen dizkieten funtzioak iharduntzen ditu. 2. Haren titulua Espainiako Erregea da eta erabil ditzake Koroari dagozkion besteak ere. 3. Erregearen pertsona ukiezinekoa da eta ez du inolako erantzukizunik. Haren ekintzak 64. artikuluan ezarritako eran berretsiturik daude beti, aipaturiko berretsipenik gabe baliapenik ez dute, 65. 2. artikuluan erabakitzen dena izan ezik.”

⁷⁸ Espainiar Konstituzioaren 62 artikulua: “a) Legeak onetsi eta promulgatu. b) Gorte Orokorrak bilerazi eta deuseztatu eta konstituzioan aurre ikusitako arauetara hauteskundeak bilerazi. c) Erreferendumera bilerazi konstituzioan aurre ikusitako kasuetan. d) Gobernuko lehendakariarako hautagarria proposatu eta, behar denean, izendatu, eta baita haren funtzioei amaiera eman Konstituzioan aurre ikusitako arauen neurrian. e) Gobernuko taldekideak izendatu eta banatu, lehendakariaren proposamenez. f) Ministro Kontseiluetan erabakitako dekretuak espeditu, enplegu zibil eta militarren konferitu eta legeen arabera ohore eta aipamenak eman. g) Estatu arazoen informazioa izan eta hauen ondorioetarako Gobernuko lehendakariaren eskabidez egoki iruditzen zaionean Ministro Kontseiluko bilkurak presiditu. h) Indar armatuen gorengo agintea. i) Grazi Eskubidea baliatu legearen arabera, indultu baimen orokorren baimenik ezin du eman. j) Erret Akademien babesgo Nagusia.”

Kasu honetan, Gorte Orokorrek legeak onesten dituztenean, prozedura legegilearen fase guztiak amaituz, onespeneren ondorioz eta argitaratu baino lehen, bi etapa gelditzen dira, onespena eta promulgazioa⁷⁹. Bi etapa horiek, Erregeak bete behar ditu, Konstituzioak funtzio horiek hala esleituz⁸⁰. Promulgazioaren bitartez, ziurtatzen da onetsia izan den testu legal bat, Estatuko ordenamendu juridikoan eranstean dela. Beraz, promulgazioaren bitartez, legea nahitaezkoa bilakatzen da, soilik Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzearen zain geldituz. Erregeak, Gorte Orokorrek legeak onesten dituzten momentutik, hamabost egun izango ditu lege horren onespena eta promulgazioa egikaritzeko, hala adierazten duen bezala, Espainiako Konstituzioaren 91 artikulua⁸¹.

Horrez gain, Erregeak Gorte Orokorrek bilerarazteko, deuseztatzeko eta Konstituzioan aurre ikusitako arauetara hauteskundeak bilerarazteko ahalmena izango du. Behin Gorte Orokorrek aukeratuta hauteskundeen ondorioz, mandatuaren amaiera dela eta 4 urte pasatu direnean edo desegitearen ondorioz, Erregeak Gorte Orokorrek bilerarazteko edo deuseztatzeko funtzioak bete beharko ditu⁸². Oro har, Erregeak ekintza horiek ezin ditu nahi dituztenean burutu, baizik eta Legeak hala adierazten dituen kasuetan. Beraz, Erregeak ekintza reglatuak baino ezin izango ditu egin. Aipatu dugun bezala, Erregearen figura sinbolikoa da *“Erregea figura sinboliko hutsa da eta ez du erabaki politikorik hartzeko gaitasunik, demokratikoki hautatuak diren erakundeei soilik baitagokie”*⁸³.

Beraz, legeak Gorteek desegiteko zenbait arrazoi ematen ditu, horien artean, Espainiako Konstituzioaren 99.5 artikulua⁸⁴ xedatzen duena. Bertan, adierazten da, lehen botazio batean eta inbestiduratik bi hilabete igaro ondoren, Biltzar konfiantzarik ez baldin badago, Erregeak Ganbara biak deuseztatuko dituela eta hauteskunde berriak bilerazi Biltzarreko lehendakariaren berrespenaz. Bigarren arrazoi bat izan daiteke, Espainiar Konstituzioaren

⁷⁹ García, Javier. (2014). “Las funciones del rey en la monarquía parlamentaria” *El Cronista del Estado Social y Democrático de Derecho*, N°47, 66-78 orr.

⁸⁰ Alzaga, Oscar. (1997). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madrid: Editoriales de derecho reunidas.

⁸¹ Espainiar Konstituzioaren 91 artikulua: *“Erregeak, hamabost eguneko epean, berretsiko ditu Gorte Orokorrek onartutako legeak, eta promulgatu eta aginduko du haien berehalaxeko argitalpena.”*

⁸² Fernandez, Segado. (1992). *El sistema Constitucional Español*. Madrid: Dykinson.

⁸³ *Idem*

⁸⁴ Espainiar Konstituzioaren 99.5 artikulua: *“Lehen botazio eta inbestiduratik bi hilabete igaro ondoren, Biltzar konfiantzarik inork ez baldin badu jaso, Erregeak Ganbara biak deuseztatuko ditu eta hauteskunde berriak bilerazi Biltzarreko lehendakariaren berrespenaz”*

168.1 artikulua⁸⁵ xedatzen duena. Kasu honetan, Konstituzioaren berrikuste osoa edo zatikakoa proposatzen denean, printzipioaren onartzera joko da Ganbara bakoitzeko hirutik bi, eta Gorteen berehalako deuseztatzea. Deuseztatzeaz azken arrazoiak, Espainiako Konstituzioaren 115 artikulua⁸⁶ xedatzen duena da. Honek azaltzen du, Gobernu Lehendakariak, Ministro Kontseiluaren aurrez ikusitako deliberapenez, eta bere ardurakizun bakarrez, proposa dezake Biltzar, Senatu edo Gorte Orokorren deuseztatzea, hura Erregeak dekretatua izanik. Dekretua deusezteak hauteskunderen data finkatuko du⁸⁷.

Horrez gain, Erregeak grazi eskubidearen ahalmena jasoko du, Espainiar Konstituzioaren 62.i) artikuluan⁸⁸ xedaturik agertzen den bezala. Honek adierazten du, Erregeak grazi eskubide hori eman ahalko duela baina indultu orokorrik eman gabe. Indultua Erregeak ematen du, baina Justiziako Ministroak proposatuta eta Ministroen Kontseiluak eztabaidatu ondoren⁸⁹.

Bestetik, Erregeak, erreferenduma formalki deitzeko ahalmena izango du, Konstituzioak aurreikusitako kasuetan. Kasu aipagarriena, Espainiako Konstituzioaren 92 artikulua⁹⁰ adierazten duena izango da, garrantzi handiko erabaki politikoak hiritargoen kontsulta baten bitartez egin daitekeela, beti ere, Erregeak deia eginez eta Lege Organiko baten bitartez arautzen dituen baldintzatan emango diren eta nola izango den prozedura.

Honekin batera, Erregeak, Gobernu lehendakariarako hautagaia proposatu egingo du eta, hala dagokionean, izendatzeko ahalmena izango du. Kasu honetan, Erregeak hautagai bat

⁸⁵ Espainiar Konstituzioaren 168.1 artikulua: “Konstituzioaren berrikuste osoa edo zatikakoa proposatzen denean, aurreko Titulua, bigarren kapitulua, I. Tituluko lehen Saila, edo II. Titulua ikutuz, printzipioaren onartzera joko da Ganbara bakoitzeko hirutik bi, eta Gorteen berehalaxeko deuseztatzea.”

⁸⁶ Espainiako Konstituzioaren 115 artikulua: “Gobernu Lehendakariak, Ministro Kontseiluaren aurrez ikusitako deliberapenez, eta bere ardurakizun bakarrez, proposa dezake Biltzar, Senatu edo Gorte Orokorren deuseztatzea, hura Erregeak dekretatua izanik. Dekretua deusezteak hauteskunderen data finkatuko du.”

⁸⁷ Alzaga, Oscar. (1997). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madrid: Editoriales de derecho reunidas.

⁸⁸ Espainiako Konstituzioaren 62.i) artikulua: “Grazi Eskubidea baliatu legearen arabera, indultu baimen orokorren baimenik ezin du eman”

⁸⁹ elDiarios (2020/10/4). *¿Qué es el indulto?* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=bd3jAM955sE&t=13s> (Kontsulta eguna: 2021/03/02)

⁹⁰ Espainiako Konstituzioaren 92 artikulua: “Garrantzi handiko erabaki politikoak hiritargoaren kontsulta Erreferendumerak meneratuak izan daitezke. 2. Erreferendum deia Erregeak egingo du, Gobernu lehendakariaren proposamenez, alde aurretik Diputatuen Biltzarrak baimendurik. 3. Lege organiko batek arautuko ditu baldintzak eta Konstituzio honetan aurrez ikusitako Erreferendumaren mota ezberdinetako prozedura.”

proposatu egiten dio Kongresuari, Espainiar Konstituzioaren 99 artikulua⁹¹ adierazten duen bezala. Ondoren, Diputatuen Biltzarrak, bere kideen gehiengo absolutuaren botoaz kandidatu hari konfiantza ematen bazaio, Erregeak lehendakaria izendatuko dio. Gehiengo hura lortzen ez bada, proposamen berdina egingo da, berrogeita zortzi ordu igaroz gero eta gehiengo soila lortzen baldin bada, konfiantza lortzen dela ulertuko da. Aipatu beharra dago, botazioak eginik inbestidurarako konfiantza ez baldin bada jasotzen, goiko ataletan aurrez ikusitako proposamenak tramitatuko direla. Lehen botazio eta inbestiduratik bi hilabete igaro ondoren, Biltzar konfiantzarik inork ez baldin badu jaso, Erregeak Ganbara biak deuseztatuko ditu eta hauteskunde berriak bileraziko ditu Biltzarreko lehendakariaren berrespenaz⁹².

Bestalde, Erregeak, Gobernuko taldekideak izendatu eta banatzeko ahalmena izango du, lehendakariaren proposamenez. Beraz, Erregeak, Presidentearen proposamenez, Gobernuko taldekideak izendatuko ditu, dekretua sinatuz⁹³. Erregeak, Ministro Kontseiluetan erabakitako dekretuak espeditu, enplegu zibil eta militarrek konferitu eta legeen arabera ohore eta aipamenak emateko ahalmena izango du baita ere. Hala ere, Estatuko arazoez informatua izan eta hauen ondorioetarako Gobernuko lehendakariaren eskabidez egoki iruditzen zaionean Ministro Kontseiluko bilkurak presiditu egingo ditu. Erregeak, indar armatuko gorengo agintea izango da eta grazi eskubidea emateko ahalmena izango du legearen arabera.

⁹¹ Espainiako Konstituzioaren 99 artikulua: “Diputatuen biltzarreko berriztatze bakoitzaren ondoren, eta beste balizko konstituzionaletan honela prozeditzean, Erregeak, aldez aurretikako kontsulta eginik errepresentapen parlamentarioaz, izendatutako talde politikoen errepresentapenarekin, eta Biltzarreko lehendakariaren bidez, Gobernuko lehendakaritzarako hautagarri bat proposatuko du. 2. Aipatutako atalaren arabera proposaturiko hautagarriak Diputatuen biltzar aurrean azalduko du sortu nahi duen Gobernuaren egitarau politikoa; eta Ganbaren konfidantza eskatuko du. 3. Diputatuen Biltzarrak, bere kideen gehiengo absolutuaren botuaz kandidatu hari konfidantza emango balio, Erregeak lehendakari izendatuko luke. Gehiengo hura lortu ezik, proposamen berdina lehengotik berrogeita zortzi ordu igaroz gero berriz ere botoetara eramango da, eta konfidantza emanda bezala, ulertuko da gehiengo soila lortzen baldin bada. 4. Aipatu botazioak eginik inbestidurarako konfidantza ez baldin bada jasotzen, goiko ataletan aurrez ikusitako elkar jarrai proposamenak tramitatuko direla. 5. Lehen botazio eta inbestiduratik bi hilabete igaro ondoren, Biltzar konfiantzarik inork ez baldin badu jaso, Erregeak Ganbara biak deuseztatuko ditu eta hauteskunde berriak bilerazi Biltzarreko lehendakariaren berrespenaz.”

⁹² Alzaga, Oscar. (1997). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madrid: Editoriales de derecho reunidas.

⁹³ *Idem*

6. Juan Karlos I. Erregearen kasua

Kasu honetan, Juan Karlos I.-aren kasu zehatza aipatuko dugu. Hiru egoera garrantzitsu kontuan hartuko ditugu, eremu penala, zibila eta politikoa. Beraz, lehenengoz, Erregearen bortxaezintasun zibila azalduko dugu. Bertan, Erregeak jaso dituen aitatasun demandak eta demanda horien ondorioak azalduko ditugu. Oro har, Auzitegi Gorenak egindako ikerketa eta emandako erantzunak aztertuko ditugu. Bigarrenez, eremu penala aztertuko dugu. Eremu honetan, Juan Karlos I. Erregeak burututako delituaz hitz egingo dugu, jasotzen dituen bortxaezintasuna, erantzukizunetik salbuesten dion edo ez aztertuz. Hirugarrenez, eremu politikoa azalduko dugu. Kasu honetan, Diputatuen Kongresuan zein Parlamentuan, Erregearen figuraz eztabaidatu eta erabaki ahal den edo ez aztertuko dugu, bereziki erreparatuz Erregearen figura ikertzeko zailtasunei.

Juan Karlos I.-ren mandatua 1975. urtetik 2014. urtera eman zen. 2014. urtean, Juan Karlos I. Erregeak abdikatu egin zuen, tronua bere semeari utziz, Felipe VI.-a Errege bihurtuz. Zehazki, Juan Karlos I.-ak, 2014. urteko ekainaren 2-an, abdikatu zuen. Abdikazio honek suposatu zuen Espainiar Estatuaren zazpigarren abdikazioa⁹⁴, eta Errege batek bere kabuz egiten duen laugarren abdikazioa. Honekin batera, Juan Karlos I. Erregeak abdikatu ahal izateko, Espainiako Konstituzioaren 57.5⁹⁵ artikuluari iruzkin txiki bat egin behar diogu. Artikulu honetan azaltzen da, edozein abdikapen zein etsipen gertatuz gero oinordetza edo Koroaren jarraipenean, Lege Organikoaren bidez erabakiko dela. Juan Karlos I.-aren kasuan, 3/2014 ekainaren 18-an emandako Lege Organikoaren bitartez eman zen eta bere abdikazioa, Felipe VI.-arengan eraginkorra bihurtu zen. Lege Organiko honek esaten duena da, Juan Karlos I.-ak Espainiako tronutik abdikatzeko duela eta behin Lege Organikoa indarrean sartzen denean, eraginkorra izango dela abdikazioa.

Juan Karlos I.-ak, Gobernuko Presidenteari idatziz adierazi zion abdikazioaren erabakia. Bertan esan zuen, duela lau hamarkada inguru, Espainiaren interes orokorrak zerbitzatzeko konpromiso irmoa hartu zuela, Nazioaren protagonistak herritarrak izateko asmoarekin eta Europan erabat integratutako demokrazia moderno bat izateko asmoarekin⁹⁶. Beraz,

⁹⁴ Oliver, Joan eta Calafell, Vicente Juan. (2017). “De Juan Carlos I a Felipe VI” *Anuario de derecho parlamentario*, N°29, 175-224 orr.

⁹⁵ Espainiar Konstituzioaren 57.5 artikulua: “*Abdikapen, etsipen eta koroa jarraipenari egitez edo eskubidezko edozein zalantza gertatuz gero lege organikoaren bidez erabakiko da.*”

⁹⁶ EAO, 148 zenbakia. 2014ko ekainaren 19a, 46396-46398 orr.

Erregearen abdikazioa eman ahal izateko, Lege Organiko bat beharrezkoa da eta Diputatuen Kongresuen gehiengo osoz behin edukita, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu egingo da⁹⁷. Hala adierazi zen abdikazioaren arrazoia artikuluan batean, hurrengoa adierazten zuena: “Erregeak abdikatu egiten du, Monarkia krisi instituzionaletik salbatzeko”⁹⁸.

Garai hartan, Gobernuak Presidenteak hala irakurri zuen adierazpena, Erregearen abdikazioaren erabakia⁹⁹. Bertan, Mariano Rajoy-k ezohiko bilera bat egin zuen abdikazioa tramitzeko Lege Organikoa onartzearren¹⁰⁰, lehen aipatu dugun Konstituzioaren 57.5 artikulua jarraituz. Behin Lege Organikoaren proiektua Kongresuan onartuta, Espainiako Senatuak, Erregearen abdikazioa betearazi zuen¹⁰¹ eta honen ondorioz, 3/2014 Lege Organikoa onetsi eta aldarrikatu egin zen ekainaren 18an¹⁰². Lege Organiko hau, 233 aldeko botoekin, 5 kontrako botoekin eta 20 abstentzioarekin eman ziren¹⁰³.

6.1 Bortxaezintasun Zibila

Juan Karlos I. Erregeak bortxaezintasun absolutuaz gozaten du. Honek esan nahi du, Espainiako Konstituzioaren 56.3¹⁰⁴ artikulua adierazten duen bezala, Erregea bortxaezina izango dela bere mandatua betetzen ari den bitartean, bai arlo pribatuan zein arlo publikoan

⁹⁷ Ley Orgánica 3/2014, del 18 de junio, por la que se hace efectiva la abdicación de Su Majestad el Rey Don Juan Carlos I de Borbón. *Boletín Oficial del Estado*, 148, de 19/06/2014, [BOE-A-2014-6476](#)-tik berreskuratuta.

⁹⁸ Zarzalejos, Jose Antonio. (2014). “El Rey abdica para salvar a la Monarquía de la crisis institucional” *El Confidencial*. Ekainaren 2a.

⁹⁹ “Buenos días a todos. Su Majestad el Rey Don Juan Carlos acaba de comunicarme su voluntad de renunciar al trono y abrir el proceso sucesorio. Los motivos que han llevado al Rey a tomar esta decisión es algo que Su Majestad desea comunicar personalmente a todos los españoles a lo largo de esta misma mañana” (Rajoy, 2014: 1)

¹⁰⁰ Ridaio, Joan. (2014) “Abdicación y Monarquía Parlamentaria en la España del siglo XXI.” *Derecho y cambio social*, N°37, 26 orr.

¹⁰¹ *Idem*

¹⁰² *Idem*

¹⁰³ El Proyecto de Ley Orgánica por la que se hace efectiva la abdicación de Su Majestad el Rey Don Juan Carlos I de Borbón (BOCG. Congreso de los Diputados, serie A, núm. 98-1, de 04/06/2014 cve: BOCG-10-A-98-1) fue aprobado por el Pleno del Congreso de los Diputados el pasado 11 de junio de 2014 por 299 votos a favor (PP, PSOE, UPyD, UPN y Foro Asturias), 19 en contra (Izquierda Plural, y los diputados del Grupo Mixto pertenecientes a ERC, Compromis, Nafarroa Bai, BNG, Nueva Canaria y 23 abstenciones (CiU, PNV y Coalición Canaria). Los diputados de Amaiur no participaron en la votación. Puede consultarse en: http://www.congreso.es/portal/page/portal/Congreso/Congreso/Iniciativas?_piref73_2148295_73_1335437_1335437.next_page=/wc/servidorCGI&CMD=VERLST&BASE=IW10&FMT=INI&TXDSS.fmt&DOCS=1-1&DOCORDER=FIFO&OPDEF=ADJ&QUERY=%28121%2F000098*.NDOC.%29

¹⁰⁴ Espainiako Konstituzioaren 56.3 artikulua: “Erregearen pertsona ukiezinekoa da eta ez du inolako erantzunkizunik. Haren ekintzak 64. artikuluan ezarritako eran berretsiturik daude beti, aipaturiko berretsipenik gabe baliapenik ez dute, 65. 2. artikuluan erabakitzen dena izan ezik.”

egindako ekintzez. Beraz, bortxaezintasun absolutua da ezin delako zibilki ez penalki auzipetu ezerengatik. Dena dela, Erregearen bortxaezintasun honek, eztabaida eragiten du, Konstituzioaren zenbait printzipioen urraketa eman daitekeelako, batez ere, Erregeak bere eremu pribatuan egindako ekintzak direla eta¹⁰⁵.

Gure kasuan, bortxaezintasun zibila Juan Karlos I.-aren aurkako aitatasun demandak aztertzean zentratuko dugu. Oro har, demandak aztertu baino lehen, garrantzi handia eman behar diogu Espainiar Konstituzioaren 39.2 artikuluari. Artikulu honek adierazten du botere publikoek seme-alaben babes osoa ziurtatzen dutela eta hauek legearen aurrean berdinak izango direla jatorria alde batetara utziz. Beraz, horien egoera zibila edonolakoa izanik, legeak aukera ematen du aitatasun ikerketa bat egiteko. Honekin batera aipatu behar dugu, Espainiako Konstituzioak 56.3 artikulua¹⁰⁶, adierazten duena Erregearen pertsona ukiezinekoa dela eta ez duela inolako erantzukizunik. Haren ekintzak 64 artikuluan ezarritako eran berretsiturik daude beti.

Kasu honetan, Juan Karlos I. Erregeak bi aitatasun demanda jaso zituen, baina, horiek aztertu baino lehen, kontuan izan behar dugu, Espainiako Konstituzioaren 39.2 artikulua xedatzen duen bezala, legeak aukera ematen duela aitatasun ikerketak egiteko. Oro har, Prozedura Zibilararen Legearen 767 artikulua¹⁰⁷ adierazten duen bezala, ez da demandarik onartuko seme-alabatasuna zehazteko edo aurkaratzeko, baldin eta, demandarekin batera, horren oinarri diren egitateen froga-hastapena aurkezten ez bada.

Horrez gain, seme-alabatasunari buruzko epaiketetan, onargarria da froga-mota guztiak erabiltzea, biologikoak barne, aitatasuna eta amatasuna ikertzeko eta zuzeneko frogarik izan

¹⁰⁵ Merino, José Fernando. (2008). "Fuero judicial aplicable a la filiación extramatrimonial", *Revista de Derecho Político*, Nº. 71-72, 376 orr.

¹⁰⁶ Espainiar Konstituzioaren 56.3 artikulua: "Erregearen pertsona ukiezinekoa da eta ez du inolako erantzukizunik. Haren ekintzak 64. artikuluan ezarritako eran berretsiturik daude beti, aipaturiko berretsipenik gabe baliapenik ez dute, 65. 2. artikuluan erabakitzen dena izan ezik."

¹⁰⁷ Prozedura Zibilararen Legearen 767 artikulua: "1. Ez da demandarik onartuko semealabatasuna zehazteko edo aurkaratzeko, baldin eta, demandarekin batera, horren oinarri diren egitateen froga-hastapena aurkezten ez bada. 2. Seme-alabatasunari buruzko epaiketetan onargarria da froga-mota guztiak erabiltzea, biologikoak barne, aitatasuna eta amatasuna ikertzeko. 3. Zuzeneko frogarik izan ez arren, semealabatasuna adieraz daiteke, hori ondorioztatzen badute esanbidezko edo isilbidezko aitortpenak, edukitza-egoerak, ernalketa-garaian amarekin bizitzeak, edo, era bertsuan, seme-alabatasuna dakarten beste egitate batzuek. 4. Aitatasun- edo amatasun-froga biologikoa egiteari ezetza emateak, hori justifikaziorik gabekoa bada, auzitegiari ahalbidetuko dio erreklamatu seme-alabatasuna adieraztea, betiere aitatasunaren edo amatasunaren aldeko beste zantzu batzuk daudenean eta beste bide batzuk erabiliz aitatasunaren edo amatasunaren froga lortu ez denean."

ez arren. Froga horien artean seme-alabatasuna adieraz daiteke, hori ondorioztatzen badute esanbidezko edo isilbidezko aitortenak, edukitza-egoerak, ernalketa-garaian amarekin bizitzeak, edo, era berean, seme-alabatasuna ekartzen duen beste egitate batzuek. Hala ere, aitatasun edo amatasun froga biologikoa egiteari ezetza emateak, hori justifikaziorik gabekoa bada, auzitegiari ahalbidetuko zaio erreklamatzeko seme-alabatasuna adieraztea. Betiere, erreklamatzeko, aitatasunaren edo amatasunaren aldeko beste zantzu batzuk egon behar dira eta beste bide batzuk erabiliz, aitatasunaren edo amatasunaren froga lortu ez denean.

Beraz, STC 7/1994¹⁰⁸ sententzian azaltzen da, soilik demanda ezeztatzeko aukera egongo dela froga printzipioa betetzen ez denean. Sententzia honetan, alde batek beste aldeari demandatu egiten dio, adieraziz bera semearen aita dela eta manutentzio gastuak ordaindu behar dituela. Kasu honetan, alde batek aitatasun frogak egiteari uko egiten dio, azalduz bere intimitatearen aurka doala eta froga printzipioa ez dela betetzen. Aitatasun froga hori lortzen ez bada, ezin da aitaren aitatasuna ziurtatu. Beraz, Auzitegiak azaldu zuen, demanda ezin dela onetsi, froga printzipio nahikorik betetzen ez badira. Froga printzipio hori izan daiteke, dokumentuen bitartez, argazkien bitartez, lekukoen bitartez eta edozein modu baten bitartez, baina froga printzipioa betez.

Esan dugun bezala, Juan Karlos I. Erregeak, bi aitatasun demanda jaso zituen. Lehenengo demanda, 2013. urtean, Alberto Solák jarritakoa. Demanda hau, Madrilko Lehenengo Instantziako Auzitegian aurkeztu zen, Juan Karlos I. Erregeak, momentu hartan aforatua ez zelako, baina Errege mandatua indarrean zegoen eta bortxaezintasun egoeraz gozatzen zuen.

Bertan, interes bereziko kasu bat izanik, eztabaidatua izan zen egoera da, nondik norako mugak zituen Erregearen bortxaezintasunak. Ministerio Fiskalak prozesu zibil honen hasiera ez emateko adierazi zuen, azalduz, Erregea bortxaezina zela eta honen ondorioz ezin zela epaitua izan¹⁰⁹. Beste alderdiak adierazi zuen, Erregeak bortxaezintasun absolutua izango balitz, Espainiako Konstituzioaren zenbait printzipioen urraketa eman zezakeela. Beraz, alde honek Erregearen bortxaezintasuna soilik Estatuburuaren funtzioetara mugatuta zegoela adierazten zuen, Gobernu Organoak berresten dituenak. Hau da, Erregearen bortxaezintasunak ezin izango dela eremu pribatura ailegatu. Horrela izango balitz,

¹⁰⁸ STC 7/1994

¹⁰⁹ Galera, Adoración. (2015). *Las demandas de filiación y la corona. Reflexiones sobre la inviolabilidad regia. El acceso a la jurisdicción y la igualdad entre los hijos*. Madrid: Uned

Erregearen bortxaezintasuna, bateragarria izango zen Espainiako Konstituzioaren 14 artikuluekin¹¹⁰, adierazten duena, Espainolak legearen arabera berdinak garela eta ez dela diskriminaziorik egongo. Bestetik, Espainiar Konstituzioaren 24 artikuluekin¹¹¹ ere bateragarria izango zen, adieraziz, pertsona guztiek eskubidea izango dutela epaile eta auzitegietatik benetako babesa lortzeko eta haien legezko interesak defendatzeko eskubidea izango dutela.

Azkenean Lehenengo Instantziako Auzitegiak, Alberto Solák jarritako demanda ezeztatu egin zuen, prozedura hasi gabe utziz¹¹². Auzitegiak azaldu zuen, Erregearen bortxaezintasuna absolutua zela, Espainiar Konstituzioaren 56.3 artikulua kontuan hartuz eta bere eremu pribatuan egindako ekintzak ere babestuta zeudela¹¹³. Honen ondorioz, Albertok erreposizio errekurtsioa aurkeztu zuen esanez, Juan Karlos I. Erregearen bortxaezintasun absolutua emango balitz, Konstituzioaren 14 artikuluen¹¹⁴ gutxiespena emango zela. Bere ustez, Espainiako Konstituzioaren 24¹¹⁵ eta 39.2¹¹⁶ artikuluen gutxiespena ematen zela ulertzen zuen¹¹⁷.

Behin Juan Karlos I. Erregeak abdikatu zuenean 2014. urtean, aitatasun demandaren aldaketa egon zen. Azaldu dugun bezala, Erregearen bortxaezintasuna amaitu egin zen abdikatu zuen momentutik eta aforatua izatera pasatzen zen. Hau da, 4/2014 Lege organikoan, 6/1986 Botere Judizialaren Legearen 55 artikuluen aldaketa eman zen, esanez, Auzitegi Gorenak

¹¹⁰ Espainiar Konstituzioaren 14 artikulua: “Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik.”

¹¹¹ Espainiako Konstituzioaren 24 artikulua: “Pertsona eskubidea epaile eta auzitegietatik benetako babesa lortzeko eskubidea dute beraiei dagozkien eskubide eta interes legezkoen ihardunetan, inoiz ere babes gabe eman ahal ez izateko”

¹¹² Lehenengo Intsantziako autoa, 1306/2013, urriak 30.

¹¹³ Galera, Adoración. (2015). *Las demandas de filiación y la corona. Reflexiones sobre la inviolabilidad regia. El acceso a la jurisdicción y la igualdad entre los hijos*. Madrid: Uned

¹¹⁴ Espainiar Konstituzioaren 14 artikulua: “Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik.”

¹¹⁵ Espainiar Konstituzioaren 24 artikulua: “Pertsona eskubidea epaile eta auzitegietatik benetako babesa lortzeko eskubidea dute beraiei dagozkien eskubide eta interes legezkoen ihardunetan, inoiz ere babes gabe eman ahal ez izateko. 2. Era berean, denek dute hontarako eskubidea: legeak lehendik izendaturiko Epaile arruntengana jotzeko, baita abokatuaren defentsa eta laguntza exijitzeko ere, haien aurkako salaketaren azalpenerako, auzibide agirizkora behar ez bezalako luzapenik gabe eta garantia osoz defentsarako dagozkien froga guztiak erabiltzeko, beraren aurka ez aitortzeko, errudunak ez aitortzeko eta errugabetzat hartzeko. Legeak kasuok arautuko ditu, hots, senitarteko edo sekretu profesionalagatik ustezki delituzko ekintzez ez dira deklaratzera behartuak izango.”

¹¹⁶ Espainiako Konstituzioaren 39.2 artikulua: “Botere publikoek, era berean, seme-alaben babespen osoa ziurtatzen dute, hauek legearen aurrean berdinak izanik jatorria alde batetara utziz, eta hauen amena berauon egoera zibila edonolakoa izanik. Legeak posibilitatuko du aitatasunaren ikerketa.”

¹¹⁷ Gómez, Yolanda. (1990). *Familia y matrimonio en la constitución española de 1978*. Madril: Publicaciones del Congreso de los Diputados.

Errege Familiaren kasu zibil zein penalak ezagutzera pasatzen zela. Beraz, kasua momentu hartan, Lehenengo Instantziako Auzitegiaren ezagutzan zegoen, baina, Erregearen abdikazioaren geroztik, Auzitegi Gorenaren ezagutzan jarri zuen¹¹⁸.

Orduan, Auzitegi Gorenak kasua ezagutzera pasatu zen eta kasu honetan, demandaren onarpena edo ezespina emateko, kontuan hartu zuen eremu prozesalean legalki ezarrita dauden baldintzak¹¹⁹. Auzitegiak adierazi zuen, baldintza horiek betez gero, Erregearen bortxaezintasunaren egoera alde batera utzi egingo zuela. Horrez gain, Auzitegi Gorenak adierazi zuen, nahiz eta Juan Karlos I.-ak orain aforatu egoera eduki, berak Estaturburua zen momentuan egindako egitateak babesten dituela bortxaezintasunaren ahalmen hori. Aldiz, beste gauza desberdin bat izango zen, Erregeak behin abdikatu egindako egitateez, kontrol juridikzional batetara babestuak daudelako eta Auzitegi Gorenak egitate horiek ezagutzeko ahalmena izango zutelako. Auzitegiak azaltzen du, bortxaezintasunak ez diola Erregeari kontrol juridikzionaletik salbuesten eta egitateak, Juan Karlos I. Erregea izendatu aurretik gertatu baziren. Orduan, bortxaezintasunaren egoera bigarren plano batean gelditzen da, aitatasun egoera bera kontuan hartuz. Hala ere, 2015. urtean, Auzitegi Gorenak Alberto Soláren demanda gaitzetsi zuen, adieraziz, froga hastapen falta zeudela, hipotesi hutsak zirela eta ez zuela egiazkotasunik¹²⁰.

Beraz, Tribunalaren arabera, Alberto Solák ez zuen froga nahikorik aurkezten aitatasun demanda aurrera jarraitzeko. Ministeritza Fiskalak, aurretiaz defendatu zuen, ez zuela froga printzipiorik betetzen eta ez zela Prozedura Zibilaren Legearen 767 artikulua¹²¹ betetzen. Azaltzen du Sola jaunak aurkeztutako frogak, ez zirela nahikoak prozedurari hasiera emateko. Horrez gain, Alberto Solak adierazten du aurkeztutako frogetan, %99 DNA bateragarritasuna duela Juan Karlos I. bere aita izateko. Hala ere, Ministeritza Fiskalak

¹¹⁸ Auzitegi Gorenaren autoa, 1/2014, urtarrilak 28.

¹¹⁹ Hirugarren eta laugarren zuzenbide oinarriak, 2015eko urtarrilaren 28ko autoaren ezestapena, Auzitegi Gorenako zibil arloa. Auzitegi Gorenaren 2015eko otsailaren 4ko autoaren bigarren zuzenbide oinarrian errepikatutako argudioak.

¹²⁰ Auzitegi Gorenaren autoa, 1/2014, urtarrilak 28.

¹²¹ Prozedura Zibilaren Legearen 767 artikulua: "1. Ez da demandarik onartuko semealabatasuna zehazteko edo aurkaratzeko, baldin eta, demandarekin batera, horren oinarri diren egitateen froga-hastapena aurkezten ez bada. 2. Seme-alabatasunari buruzko epaiketetan onargarria da froga-mota guztiak erabiltzea, biologikoak barne, aitatasuna eta amatasuna ikertzeko. 3. Zuzeneko frogarik izan ez arren, semealabatasuna adieraz daiteke, hori ondorioztatzen badute esanbidezko aitortpenak, edukitza-egoerak, ernalketa-garaian amarekin bizitzeak, edo, era bertsuan, seme-alabatasuna dakarten beste egitate batzuek. 4. Aitatasun- edo amatasun-froga biologikoa egiteari ezetza emateak, hori justifikaziorik gabekoa bada, auzitegiari ahalbidetuko dio erreklamatu seme-alabatasuna adieraztea, betiere aitatasunaren edo amatasunaren aldeko beste zantzu batzuk daudenean eta beste bide batzuk erabiliz aitatasunaren edo amatasunaren froga lortu ez denean."

adierazten du, froga horiek, hipotesi hutsak direla eta DNA froga horiek, lagin anonimoak direla. Gainera, DNA froga horiek benetazkoak izango balira, Erregearen adostasunik gabe lortu direla ulertuko zuen Auzitegiak, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 11 artikulua¹²² kontra joango zena, delitu bat suposatuz¹²³.

Bestalde, Juan Karlos I. Erregeak, 2014. urtean bigarren aitatasun demanda bat jaso zuen, kasu honetan, Ingrid Jeanne Sartiau belgikar emakumeak aurkeztuz. Kasu honek, Auzitegi Gorenak ere ezagutu zuen, demanda aurkeztu zen momentuan, Juan Karlos I. Erregeak abdikatu zuelako. Auzitegi Gorenak, Alberto Solá kasuaren arrazoi berdinak ematen ditu. Adierazten du, demanda onartzeko edo ez onartzeko, ez duela kontuan hartuko Erregearen bortxaezintasunaren egoera, ekintzak burutu ziren momentuan Erregeak oraindik ez zuelako bere mandatua hasi. Horrez gain, eta aurreko kasuaren jurisprudentzia erabiliz, esaten du demanda onartua izan ahal izateko, Prozedura Zibilararen Legearen 767 artikulua¹²⁴ azaltzen den froga printzipioa bete behar duela¹²⁵.

Auzitegi Gorenak, kasu honetan, Ingrid Jeanne Sartiau-aren frogak onartu zituen, legeak eskatzen zituen froga printzipio horiek betez. Froga horien artean, dokumentu notarial bat aurkeztu zuen, adierazten zuena demandantearen amak, Juan Karlos I. Erregearekin erlazio bat izan zuela. Dena dela, demandatuak erreposizio errekurtsio bat jarri zuen eta Auzitegi Gorenak, esan zuen Ingrid Jeanne Sartiauk aurkeztutako dokumentua, ez zuela Prozedura Zibilararen 767 artikulua¹²⁶ froga printzipioak betetzen. Aurkeztutako frogak, hasiera batean

¹²² 6/1985 Botere Judizialaren Lege Organikoa, uztailak 1ekoa.

¹²³ Biglino, Maria Paloma. (2001). "La inviolabilidad de la persona del Rey y el refrendo de sus actos" *La monarquía parlamentaria*, Nº1, 201-214 orr.

¹²⁴ Prozedura Zibilararen Legearen 767 artikulua: "1. Ez da demandarik onartuko semealabatasuna zehazteko edo aurkaratzeko, baldin eta, demandarekin batera, horren oinarri diren egitateen froga-hastapena aurkeztzen ez bada. 2. Seme-alabatasunari buruzko epaiketetan onargarria da froga-mota guztiak erabiltzea, biologikoak barne, aitatasuna eta amatasuna ikertzeko. 3. Zuzeneko frogarik izan ez arren, semealabatasuna adieraz daiteke, hori ondorioztatzen badute esanbidezko edo isilbidezko aitorpenak, edukitza-egoerak, ernalketa-garaian amarekin bizitzeak, edo, era bertsuan, seme-alabatasuna dakarten beste egitate batzuek. 4. Aitatasun- edo amatasun-froga biologikoa egiteari ezetza emateak, hori justifikaziorik gabekoa bada, auzitegiari ahalbidetuko dio erreklamatu seme-alabatasuna adieraztea, betiere aitatasunaren edo amatasunaren aldeko beste zantzu batzuk daudenean eta beste bide batzuk erabiliz aitatasunaren edo amatasunaren froga lortu ez denean."

¹²⁵ Auzitegi Gorenaren autoa, 1/2014, urtarrilak 28.

¹²⁶ Prozedura Zibilararen Legearen 767 artikulua: "1. Ez da demandarik onartuko semealabatasuna zehazteko edo aurkaratzeko, baldin eta, demandarekin batera, horren oinarri diren egitateen froga-hastapena aurkeztzen ez bada. 2. Seme-alabatasunari buruzko epaiketetan onargarria da froga-mota guztiak erabiltzea, biologikoak barne, aitatasuna eta amatasuna ikertzeko. 3. Zuzeneko frogarik izan ez arren, semealabatasuna adieraz daiteke, hori ondorioztatzen badute esanbidezko edo isilbidezko aitorpenak, edukitza-egoerak, ernalketa-garaian amarekin bizitzeak, edo, era bertsuan, seme-alabatasuna dakarten beste egitate batzuek. 4. Aitatasun- edo amatasun-froga biologikoa egiteari ezetza emateak, hori justifikaziorik gabekoa bada, auzitegiari ahalbidetuko dio erreklamatu seme-alabatasuna adieraztea, betiere aitatasunaren edo amatasunaren

balio zuten prozedurari hasiera emateko, baina errekursoaren ondorioz, Auzitegiak azaldu zuen, aurkeztutako frogaren ondorioz, zenbait komunikabideetan emandako informazioa dela eta, kontraesanak jasotzen zituela¹²⁷.

6.2 Bortxaezintasun penala

Juan Karlos I. Erregeak, aitatasun demandaz gain, bestelako kasu penal desberdinak izan ditu. Bertan, Juan Karlos Erregeari, hiru kausa nagusi leporatzen zaizkio. Lehenengoz, Auzitegi Gorenak ikertzen ari den kasua, 2011. urtean Espainiar enpresa batzuei trenbide baten eraikuntza esleitu zitzaion eta Erregeak 80 milioi euro jaso izan zituen esleipen horren ondorioz. Bigarrenik, 2008. urtean Saudi Arabiatik dohaintza bat jaso zuen, 100 milioi eurokoa eta Suitzar akzioen bitartez ezkutatu zuen diru hori, ogasunari ezer ordaindu barik. Hirugarrenik, Juan Karlos I.-ak ogasunari burututako delitu fiskalak egongo lirateke¹²⁸.

Beraz, Auzitegi Gorenak kausa bat zabaldu zuen Juan Karlos I. Erregearen kontra, dirudienez, Erregeak trenbide horren esleipenaren ondorioz enpresa espainiarrei, komisiobatzuk kobratu egin zituela susmatzen zelako. Auzitegiaren ikerketa hasten da, Villarejo eta Corinnaren arteko grabazio batzuk agertu zirelako, esanez, Juan Karlos I. Erregeak obra horien esleipenaren ondorioz, zenbait komisioren ordainketak jaso zituelako, 80 milioi eurotan baloraturik. Bestalde, 2018. urtean, Ginebrako autoritateak Arturo Fasanaren kontu korronteak ikertuz, zenbait fundazio aurkitu zituen. Kontu korronte horrekin, badirudi, Juan Karlos Erregearen zenbait bidai ordaindu zirela eta zenbait dohaintza burutu zirela¹²⁹.

Beraz, Auzitegi Gorenak ikertzen ari diren kausak dira. Eztabaidan jartzen den ideia da, Erregeak bere mandatuan burututako delituez izango balira, salbuetsita egongo zela modu absolutuan, eta ezin izango zela Juan Karlos I. auzipetu. Hala ere, badaude delitu fiskal batzuk non Juan Karlos I.-aren abdikazioaren geroztik gertatu ziren, beraz, Auzitegi Gorenak kasuaz ezagutzeko ahalmena izango zuen, Erregearen aforamendua dela eta. Orduan, Espainiako Konstituzioak babesten du Juan Karlos I. Erregea, bere mandatu betetzen ari zen momentuan burututako delituez, baina ez, abdikazioaz geroztik burututako delituez.

aldeko beste zantzu batzuk daudenean eta beste bide batzuk erabiliz aitatasunaren edo amatasunaren frogak lortu ez denean.

¹²⁷ Auzitegi Gorenaren autoa, 1/2014, urtarrilak 28.

¹²⁸ Martínez, Juan. (2020). "Claves: ¿Qué es el caso del AVE a La Meca y por qué se involucra al rey Juan Carlos?" *20 Minutos*. Ekainaren 8a.

¹²⁹ *Idem*

Horrez gain, orain dela gutxi, Juan Karlos I. Erregea bi erregularizazio burutu zituen, bestelako delitu fiskal bat saihestuz. Lehenengo erregularizazio batean, Erregeak 678.393 euro ordaindu zaizkio ogasunari¹³⁰ eta bigarren erregularizazioan, 4.000.000 milioi euro ordaindu zizkion ogasunari¹³¹.

Honekin batera, alderdi Komunista, Izquierda Unida, Foro de abogados y Abogados de Izquierdas kereila bat jarri zuten Juan Karlos I. Erregearen aurka. Erregeari inputatzen zaizkion delituak dira: funtzionario eroskeria; herri ogasunaren aurkako delituak; bidegabeko eralgitzea; iruzur delitua; eragimen trafikoa; kapitala zuritzearen delitua; estaltze delitua; mehatxuen delitua; delituak jazartzeko betebeharra ez betetzea eta partikularren arteko ustelkeria. Juan Karlos I.-aren kontra izanik, kasua Auzitegi Gorenak ezagutu zuen. Badirudi, Erregeaz gain, beste kide batzuk ere erakunde kriminalean parte hartu zutela, aurkeztutako grabazioak hala adierazten duen bezala. Kontratistek ordaindutako legez kanpoko komisioak egon zirela baieztatzen da, gutxienez, AHT obren ondorioz jasotakoa¹³².

Auzitegi Gorenaren autoak azaltzen du Corinna Zu Sayn Wittgenstein mehatxuak jaso egin zituela. Mehatxu horiek, Félix Sanz Roldán bitartez, eta Juan Karlos I. ustezko izen mailegatzailen bitartez burutu omen ziren. Beraz, Erregeak zein bere mailegatzailak, Corinna andreari presionatu zuten ondasun zehatz batzuk entregatzeko. Ondasun horiek bere garaian, Erregeak, Corinnaren izenean jarri zituen, Juan Karlos I.-aren egoera fiskal hobeago bat bilatuz. Azaltzen da, delituak denbora luze batean burutu zirela eta 2014. urtetik aurrera, gauzatzen jarraitu zirela gaur egun arte¹³³.

Auzitegi Gorenak, ezetsi zuen demandanteak jarritako Kereila. Adierazi zuen, ez zeudela froga nahikorik prozesua aurrera jarraitzeko eta gertakariak ikertu egin zituen auzitegiak, ez zuela zantzu nahikorik aurkitu prozesuarekin jarraitzeko. Auzitegiak azaltzen du, aurretik Auzientzia Nazionalak kasua aztertu zuela eta artxibatu egin zuela, zantzu kriminalik aurkitu ez zirelako. Horrez gain, Auzitegiak adierazten du, demandanteak ezin duela bere desadostasuna adierazi kereila bat jarriz froga berdinak aportatuz, beste prozesu penal baten

¹³⁰ Jiménez, José María (2020). “Juan Carlos I paga 678.393 euros a Hacienda para evitar una causa judicial” *El País*. Abenduaren 9a.

¹³¹ Irujo, José María (2021). “Juan Carlos I paga más de cuatro millones al fisco en una segunda regularización” *El País*. Otsailaren 25a.

¹³² Auzitegi Gorenaren autoa, 21092/2018, uztailearen 24.

¹³³ *Idem*

ikerketa bilatuz, organo jurisdikzional desberdin batean. Demandanteak adierazi zuen, Auzitegi Nazionalak ez zuela kompetentziarik kasua ezagutzeko, Auzitegi Gorenaren kompetentzia zelako. Hala ere, Auzitegi Gorenak ezetsi zuen kereila, kasua artxibatuz¹³⁴.

2020ko uztailan, Òmnium Culturalek kereila bat jarri zuen Auzitegi Gorenean. Kereila hau, aurreko kereilaren antzekoa da, delitu berdinak inputatuz. Lehen aipatu dugun bezala, delitu horiek dira inputatzen zaizkion delituak: funtzionario eroskeria; herri ogasunaren aurkako delituak; bidegabeko eralgitzea; iruzur delitua; eragimen trafikoa; kapitala zuritzearen delitua; estaltze delitua; mehatxuen delitua; delituak jazartzeko betebeharra ez betetzea eta partikularren arteko ustelkeria. Auzitegi Gorenak, berriz ere, kereila ezetsi zuen¹³⁵.

6.3 Erregea Parlamentuan ikertzeko ezintasunak.

Kasu honetan, eztabaidatuko duguna da Erregearen bortxaezintasuna absolutua izanik, bere figuraz eztabaidatu eta erabaki ahal den Estatuko Parlamentu ezberdinetan.

Adibidez, Kataluniako Parlamentuak 2019. urteko martxoan, Monarkiari eta Erregeari buruzko ikerketa batzordea sortzea onetsi zuten. Ikerketa horren helburua zen, Errege Familiaren ekintza deliktiboak aztertzea, korrupzio estrukturak ikertzea eta Suitzan dauden kontu irregularrak ikertzea, batez ere, Juan Karlos I.-arekin zerikusia dutenak. Ikerketa batzordea sortzearen alde, JXCAT, ERC, CATECP eta CUP-CC alderdi politikoak egon ziren. Ministroen Kontseiluak ebazpen hori aurkaratzea erabaki zuen. Erabakia aurkaratzeko, Espainiako Konstituzioaren 161.2 artikulua¹³⁶ aplikatu zuen. Artikulu honek adierazten du, Gobernuak Konstituzio Auzitegiaren aurrean aurkaratu dezakeela Erkidego Autonomoen edozein erabaki edo arau¹³⁷.

Auzitegi Konstituzionalak 111/2019 sententzian azaltzen du, Parlamentuaren ikerketa batzordeak kontrol konstituzional bat izan behar duela, izaera politikoaz gain, izaera juridikoa den ekintza bat delako. Beraz, azaltzen da, Kataluniako Parlamentuak ez duela ahalmenik

¹³⁴ *Idem*

¹³⁵ Moreno, Rosalina. (2021). "El Supremo archiva las querellas de IU y Omium Cultural contra el Rey emérito" *Confilegal*, otsailaren 15a.

¹³⁶ Espainiako Konstituzioaren 161.2 artikulua: "Konstituzio Auzitegira bidal ditzake Gobernuak Erkidego Autonomoen edozein erabaki edo arau. Auzitegira eramandako edozein erabaki edo arau etenaldi batetan sartzen da baina auzitegiak hurrengo bost hilabeteetan nahitaez berretsi edo kendu egin beharko dio etenaldi hori."

¹³⁷ Auzitegi Konstituzionalaren auzia, 111/2019, urriaren 2.

Monarkiaren eta Erregearen ikerketak egiteko, Estatuburuak arlo autonomikotik kanpo gelditzen delako. Parlamentuko abokatuak defendatu zuen, Kataluniako Parlamentuak ikerketa batzordeak sortu ahalko dituela, beti ere, Kataluniarentzat interes garrantziko edozein gaiari buruzkoa bada, hala adierazten duen bezala Kataluniako Autonomi Estatutuaren 59.6 artikulua¹³⁸.

Hala ere, Auzitegiak adierazten du Espainiako Konstituzioaren 117.3 artikulua¹³⁹ ere urratzen dela, esaten duena, era guztietako auzietan epaitu eta epaitutakoa beteko dela, legeek finkatutako Epaitegi eta Auzitegietan, konpetentzia arauak eta haiek ezartzen duten prozedura kontuan hartuz. Azaltzen du, Parlamentuari ez dagokiola inputaziorik, ikerketarik ezta gertakariak juridikoki kalifikatzea. Adierazten du, Parlamentu autonomikoak ez duela ahalmenik kontrol politiko zein jurisdikzional bat aurrera egiteko, Estatuburuak, lehen aipatu dugun bezala, bortxaezina delako modu absolutu batean Espainiar Konstituzioaren 56.3 artikulua¹⁴⁰ arabera.

Auzitegiak garrantzia ematen dio Erregearen bortxaezintasunari, eta azaltzen du batzorde parlamentario batek ezin duela Estatuburuaren delitu penalak ikertu. Horrez gain, azaltzen du bortxaezintasunaren ahalmena amaituz gero, ikerketa batzordeak ezin duela Erregeak burututako delituez ikertu, jadanik azaldu dugun bezala, bere aforamendua dela eta, Auzitegi Gorenak izango delako eskuduna. Behin eta berriz adierazi du Auzitegiak, Parlamentuak onetsitako Monarkiaren ikerketarekin, modu subsidiario batean, Estatuburuaren ikerketa bilatzen ari dela. Beraz, Auzitegi Konstituzionalak ikerketa batzordea inkonstituzional bezala adierazi zuen eta ezetsi zuen Kataluniako Parlamentuaren nahia¹⁴¹.

Honekin batera, Kongresuan eztabaidatu egin zen Erregearen bortxaezintasunaren figura, ezabatu egin behar bazen edo ez. Horrez gain, Juan Karlos I. aforamenduari buruz ere

¹³⁸ Kataluniako Autonomia Estatutuaren 59.6 artikulua: *“El Parlamento puede crear Comisiones de investigación sobre cualquier asunto de relevancia pública que sea de interés de la Generalitat. Las personas requeridas por las Comisiones de investigación deben comparecer obligatoriamente ante las mismas, de acuerdo con el procedimiento y las garantías establecidos por el Reglamento del Parlamento. Deben regularse por ley las sanciones por el incumplimiento de esta obligación.”*

¹³⁹ Espainiako Konstituzioaren 117.3 artikulua: *“Era guztietako auzietan jurisdikzio ahalmenaren ihardunketa, epaituz eta epaitutakoa betez, legeek finkatutako Epaitegi eta Auzitegiei dagozkie zehazki, konpetentzia arauak eta berauek ezartzen duten prozeduraz”*

¹⁴⁰ Espainiako Konstituzioaren 56.3 artikulua: *“Erregearen pertsona ukiezinekoa da eta ez du inolako erantzunkizunik. Haren ekintzak 64. artikuluan ezarritako eran berretsiturik daude beti, aipaturiko berretsipenik gabe baliapenik ez dute, 65. 2. artikuluan erabakitzen dena izan ezik”*

¹⁴¹ Auzitegi Konstituzionalaren auzia, 111/2019, urriaren 2.

eztabaidatu egin zen eta beste hainbat kargu publikoen aforamendua ezabatzeaz hitz egin zen. ERC alderdi politikoak adierazi zuen, Konstituzioak azaltzen duen bezala, pertsona guztiak berdinak garela Legearen aurrean eta 14 artikulua¹⁴² horrek adierazten duen bermatu behar dela¹⁴³.

ERC partidu politikoak, berdintasunaren printzipioa bermatu egin behar dela adierazi zuen eta Juan Karlos I. Erregearen prerrogatiba zehatz batzuk amaitu behar direla azaldu zuen, bortxaezintasuna eta erantzukizun eza, hain zuzen ere. Horrez gain, Errege Familiaren aforamendua kentzea eskatzen zuen, 2014. urtean emandako Lege Organikoaren bitartez jaso zuena. Beraz, Espainiar Konstituzioaren erreforma bat eskatzen zuten, esan dugun bezala, alde batetik, Erregearen bortxaezintasuna eta erantzukizun eza kentzeko, eta beste alde batetik, zenbait kargu publikoen aforamendua kentzeko¹⁴⁴. Bertan, Kongresuak ezetsi zuen ERC-k proposatutako eskaerak, PSOE, PP, VOX eta Ciudadanos kontra bozkatu zutelako.

Bestalde, Kongresuan ere eztabaidatu zen, Juan Karlos I.-ak erabilitako txartel opakoek kasua ikertu behar bazen edo ez. Azken batean, PP, VOX eta PSOE alderdi politikoak ezezko botoa eman zuten eta ez zen aurrera eraman izandako proposamena. 276 kontrako boto eta 74 aldeko boto jaso zituen izandako proposamena¹⁴⁵.

¹⁴² Espainiako Konstituzioaren 14 artikulua: *“Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik”*

¹⁴³ García, Luis B. (2021). “El Congreso rechaza poner fin a la inviolabilidad del Rey y retirar el aforamiento al emérito” *La Vanguardia*. Otsailaren 25 a.

¹⁴⁴ *Idem*

¹⁴⁵ *Idem*

7. Ondorioak:

Aurreko guztia aztertu ondoren, Gradu Amaierako Lan honen ondorioak honako hauek dira:

1. Monarkia parlamentarioa, Gobernu forma bat da non Erregearen figura, Estatuburu bezala hartzen da. Sistema mota hau, Britain Handian XVII. mendean jatorria izan zuen eta prozesu luze baten ondorioz sortu zen. Bertan, Estatuburua, Parlamentuaren eta Gobernuaren kontrolpean dago. Monarkia parlamentarioaren printzipio orokor batzuk daude, horien artean, Estatuburua ez dela subiranoa, ez dela legegilea eta ez duela gobernatzen; hori dela eta, Estatuburu demokratikoki ez hautatzea justifikaturik legoke. Erregeak funtzio arautu batzuk betetzen ditu baina ez dauka boteririk. Beraz, Monarkia parlamentarioaren ezaugarri da, Estatuburuaren figura, ordezkari gorenaz izango dela, baina Gobernuaren eta Parlamentuaren kontrolpean egonik.

2. Oro har, Erregeak Monarkia parlamentarioetan, zenbait funtzio bete behar ditu. Espainiako Konstituzioaren 62 artikulua adierazten duen bezala, Erregeak legeak onesteko eta promulgatzeko aukera izango du, Gorte Orokorak bilerarazteko eta deuseztatzeko, Gobernuko lehendakariaren hautagarria den pertsona proposatzeko aukera eta beharrezkoa denean, izendatu eta haren funtzioei amaiera emateko Konstituzioak aurreikusten dituen kasuetan, edota Gobernuko taldekideek izendatzeko edo banatzeko aukera izango du, beti ere, lehendakariaren proposamenaz.

3. Espainiako Estatuari dagokionez, kontuan izan behar dugu, Francoren erregimena 1939-1975. urteetan indarrean egon zela eta 1947. urtean, Estatu Buruzagitzaren Ondorengotza Legea martxan jarri zuela, Juan Karlos I. Erregea izendatzeko asmoarekin. Francoren heriotzarekin, 1977. urtean Erreforma Politikoaren Legea onartu zen eta honen ondorioz, trantsizioari ateak parez pare ireki zitzaizkion. Horren ondotik, 1978. urtean, Espainiako Konstituzioa onartu egin zen. Konstituzioa, Espainiako trantsizioaren ondorio garrantzitsua izango da, lege goren bihurtuz. Konstituzioak, herritarren berdintasuna eta justizia bilatzen du, eta Erregeari hainbat funtzio esleitzen dizkio.

4. Behin 1978. Espainiako Konstituzioa indarrean sartuta, bere 1.3 artikulua adierazten du, Estatu Espainiarraren politika era Monarkia parlamentarioa zela. Beraz, 1978. Espainiako Konstituzioak, zenbait ahalmen esleitzen dizkio Erregeari. Ahalmen horien artean,

Konstituzioaren 56.3 artikulua adierazten duen ahalmena aurkitzen dugu, Erregea bortxaezina izango dela eta ez duela inolako erantzukizunik izango. Espainiako Konstituzioan aurkitzen direnez gain, Erregeak beste prerrogatiba batzuk jasotzen ditu, esate baterako, aforamendua. Erregea 2014. urtean aforatua izatera pasatu zen, bere kargua utzi zuenean. Beraz, jadanik azaldu dugun bezala, Juan Karlos I. Erregeak bortxaezintasun ahalmena galdu zuen eta aforatua zenez, Auzitegi Gorenak izandako kasua ezagutuko zuen.

5. Erregearen bortxaezintasunari dagokionez, absolutua dela esan dezakegu, bere mandatuan zehar egindako ekintza guztiez salbuesten diolako. Oro har, Erregearen bortxaezintasuna absolutua denez, bizitza publiko eta pribatuko egintza guztiak babesturik agertzen dira, hau da, bizitza pertsonalean edo kargu publiko bezala burututako delituak burutzen baditu, legearen bitartez babesturik egongo dira. Horren harira, epaitegiek argi adierazi dute, bortxaezintasun hori, legegileak diseinatutako sistema Monarkiko parlamentarioaren ondorio dela eta bortxaezintasunak esleitzen dion babes juridikoak, defentsa eraginkor bezain osoa bermatzen diola Erregeari. Hori esanda, 1978 Konstituzioak eragindako sistema Monarkiko parlamentario honetan, Erregeak ezin du modu independente batean jardun. Beraz, erabaki propioak hartzeko legitimaziorik ez duenez, ezin du bere kasa egintza juridiko loteslerik eragin. Honek esan nahi du, beste organo bat beharrezkoa dela, Erregeak, egintza aurrera ateratzeko. Hori dela eta, Erregeak ez du erantzukizunik izango.

6. Juan Karlos I. Erregearen kasu zehatzari dagokionez, hiru eremuetan jaso du bortxaezintasuna: eremu zibilean, penalean, eta beste modu batean, politikoan. Hiru eremuetan Erregearen aurka jo da, zibilean, aitatasun demandak izanik, penalean, korrupzio arazoak agertu zirenean, eta politikoan, Kataluniako Parlamentuak Erregearen bortxaezintasuna eztabaidatu nahi izan zuenean, bere kausa penalak ikertu nahian. Kasuok ikertuta, Erregearen figura guztiz blindaturik dagoela baieztatu dezakegu, bere mandatura irauten duen bitartean, ezin delako bere aurka jo. Behin bere abdikazioa adierazi zuenean, aforatua izatera pasatu zen eta burututako delituaz, Auzitegi Gorenak ezagutuko du kasua.

7. Aurreko guztia esanda, guk uste dugu Erregeak jasotzen dituen ahalmenak, pribilegioak direla prerrogatibak baino. Kontuan izan behar dugu, Espainiako Konstituzioaren 14 artikulua adierazten duela hiritar guztiak berdina direla legearen aurrean, honek kontraesan juridikoa suposatzen duen bitartean, Erregeak jasotzen dituen ahalmen eskusiboekin. Oro har, Espainiako Monarkiak bizi duen krisialdia ugaritu egin da, 1978ko Espainiako Konstituzioak

Koroari aitortzen dizkion pribilegioen aurkako ahotsak gero eta gehiago agertzen direlako. Konstituzioak Koroari esleitzen dizkion pribilegio horiek, lotura estua dute lehen aipatu dugun ideiekin.

Bertan sortzen den eztabaida da, Erregeak, delituak burutuz gero, zer gertatuko litzateke? Erregea bortxatzaile edo hiltzailea izango balitz? Legearekin bat, Erregeak ez luke erantzukizunik izango, beste pertsona bat hil edo bortxatu izanagatik, beti ere gertakariak, bere mandatua irauten zuen bitartean gertatu izan balira. Behin mandatua amaitzen denean, judizialki bere kontra joan daiteke, baina, beti ere, abdikazioaz geroztik burututako delituengatik soilik.

8. Aipagarria da ere, genero ikuspegitik, Erreginak ezin duela dibortziorik eskatu, Erregearen bortxaezintasuna dela eta. Beraz, nire aburuz, Erregearen pribilegioak gehienezkoak direla esango nuke. Ulertu dezaket, Estatuaren figura gorena izanik, zenbait prerrogatiba jasotzea, baina beti ere, bere karguan burutzen dituen ekintzengatik eta ez eremu pertsonalean burututako ekintzaz, bestela benetazko pribilegioen aurrean aurkitzen baikara.

9. Azken batean, eztabaida honen mamia erantzuteko, Espainiako hiritar guztien ahotsa entzun beharko genuke eta erreferendum bitartez galdetu zer nahiago duen jendeak. Orduan, sortzen den galdera da, ea posible den hori galdetzea biztanle guztiei edo ez. Bertan, Espainiar Konstituzioaren 92.1 artikulua adierazten duen bezala, garrantzi handiko erabaki politikoak hiritargoaren kontsulta erreferendum bitartez meneratuak izan daitezke. Gero, noski, herritarren iritzia errepublikaren aldekoa balitz Konstituzioa erreformatu beharko litzateke.

8. BIBLIOGRAFIA:

8.1 Doktrina

-Abellán, Maria Isabel. (2003). “Sinopsis artículo 56” *congreso.es*. [On-line], eskuragarri hemen:

<https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=56&tipo=2>

-Aragón, Manuel. (1990). *Dos estudios sobre la monarquía parlamentaria en la constitución española*. Madril: Tirant Editorial.

-Aragón, Manuel. (2004). “El papel del rey en la monarquía parlamentaria” *Estudios parlamentarios y de estado autonómico*, Nº1, 1-24 orr.

-Angel Menéndez Rexach. (1979). *La Jefatura del Estado en el derecho público español*, Instituto Nacional de Administración Pública. Madril: Revista General de Derecho.

-Andrey, Carmen. (2018). “Diferencias entre inviolabilidad, inmunidad y aforamiento” *Andrey Ferreiro abogados*. [On-line], Eskuragarri hemen: <https://andreyferreiroabogados.com/2018/07/26/diferencias-entre-inviolabilidad-inmunidad-y-aforamiento/> [Kontsulta eguna: 2021/03/05]

-Alzaga, Oscar. (1997). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Editoriales de derecho reunidas.

-Alzaga, Oscar. (2001). “La monarquía parlamentaria” *La monarquía parlamentaria*, Nº1, 53-64 orr.

-Artola, Miguel. (1991). “La monarquía parlamentaria” *Ayer*, Nº1, 105-124 orr.

-Belda, Enrique. (2015). “La evaluación y el control de los actos del Rey, como presupuesto para mejorar la racionalización democrática de la Corona” *Revista catalana de dret públic* Nº51, 155-173 orr.

-Biglino, Maria Paloma. (2001). “La inviolabilidad de la persona del Rey y el refrendo de sus actos” *La monarquía parlamentaria*, N°1, 201-214 orr.

-Colomer, Antonio. (1978). “El origen de la Monarquía parlamentaria en España y el Anteproyecto constitucional” *Revista de estudios políticos*, N°3, 101-120 orr.

-Calvo, Luís. (2016). “Prerrogativas de la Corona Británica” *Revista de estudios políticos*, N°35-36, 140-149 orr.

-Contreras, Manuel. (2015). “La ley para la reforma política: Memoria y legitimidad en los inicios de la transición española a la democracia” *Revista de estudios políticos*, N°168, 77-114 orr.

-Díaz, Francisco Javier. (2004). “La corona desde la perspectiva jurídico-constitucional” *Revista española de derecho constitucional*, N°71, 397-412 orr.

-Díaz, Francisco Javier. (2015). “La monarquía parlamentaria, entre la historia y la Constitución” *Pensamiento constitucional*. [On-line], eskuragarri hemen: <https://archivos.juridicas.unam.mx/www/bjv/libros/9/4037/7.pdf> [Kontsulta eguna: 2021/02/17]

-Delgado-Iribarren, Manuel. (2005). “Sinopsis artículo 1” *congreso.es*. [On-line], eskuragarri hemen: <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=1&tipo=2> [Kontsulta eguna: 2021/04/27]

-Fernández, Tomás y Tamaro, Elena. (2004). “Louis Adolphe Thiers” *Biografías y vidas, La enciclopedia biográfica en línea*. [On-line], Eskuragarri hemen: <https://www.biografiasyvidas.com/biografia/t/thiers.htm> [Kontsulta eguna: 2021/02/18]

-Fernandez-Fontecha, Manuel eta Perez de Armiñán, Alfredo. (1987). *La Monarquía y la Constitución*. Madril: Civitas.

-Fernandez, Segado. (1992). *El sistema Constitucional Español*. Madril: Dykinson.

- Ferrando, Juan. (1975). “Teoría de la instauración monárquica en España” *Revista de estudios políticos*, N°203, 245-279 orr.
- García, Mariano. (2001). “Las monarquías parlamentarias europeas” *Monarquía y Constitución*, N°1, 81-94 orr.
- Galera, Adoración. (2015). *Las demandas de filiación y la corona. Reflexiones sobre la inviolabilidad regia. El acceso a la jurisdicción y la igualdad entre los hijos*. Madrid: UNED.
- García, Javier. (2014). “Las funciones del rey en la monarquía parlamentaria” *El Cronista del Estado Social y Democrático de Derecho*, N°47, 66-78 orr.
- Gómez, Yolanda. (1990). *Familia y matrimonio en la constitución española de 1978*. Madril: Publicaciones del Congreso de los Diputados.
- Gómez, Esperanza. (2021). “Los límites de la autonomía parlamentaria hoy. El conflicto catalán y el control de los actos parlamentarios sin valor de ley por el Tribunal Constitucional” *Teoría y realidad constitucional*, N°47, 237-261 orr.
- Ibáñez, Jose Luis. (2019). “La Transición española (transcurrió entre 1975 y 1982)” *Periodistas en español.com*. [On-line], Eskuragarri hemen: [eskuragarri https://periodistas-es.com/la-transicion-espanola-transcurrio-entre-1975-y-1982-133364](https://periodistas-es.com/la-transicion-espanola-transcurrio-entre-1975-y-1982-133364)
[Kontsulta eguna: 2021/04/07]
- López, Laureano. (1979). *La larga marcha hacia la monarquía*. Bartzelona: Plaza & Janés.
- Martínez, María luz. (2015). “El aforamiento de los cargos públicos. Derecho español y derecho comparado” *Teoría y realidad Constitucional*, N°35, 437-478 orr.
- Montero, Juan; Gómez, Juan Luis eta Barona, Silvia. (2016). *Derecho jurisdiccional*. Balentzia: Tirant lo Blanch.
- Máxima, Julia. (2020). “Monarquía parlamentaria” *Enciclopedia historia*, Eskuragarri hemen: <https://www.caracteristicas.co/monarquia-parlamentaria/#ixzz6lPBad3HC>

-Merino, José Fernando. (2008). “Fuero judicial aplicable a la filiación extramatrimonial” *Revista de Derecho Político*, N° 71-72, 376 orr.

-Navas, Marisa (2019). “*Qué es ser aforado y en qué países existe este privilegio*” Eskuragarri hemen:
<https://www.lainformacion.com/practicopedia/que-es-ser-aforado-y-en-que-paises-existe-este-privilegio/6509675/?autoref=true> [Kontsulta eguna: 2021/03/05]

-Oliver, Joan eta Calafell, Vicente Juan. (2017). “De Juan Carlos I a Felipe VI” *Anuario de derecho parlamentario*, N°29, 175-224 orr.

-Pérez, Jorge. (2016). “Monarquía absoluta, monarquía constitucional y monarquía parlamentaria” *El cronista del estado social y democrático de derecho*, N°60, 58-65 orr.

-Rodríguez, Luis. (1982). “La inviolabilidad del rey en la Constitución” *La ley*, N°1, 864-866 orr.

-Ridao, Joan. (2014). “Abdicación y Monarquía Parlamentaria en la España del siglo XXI” *Derecho y cambio social*, N°37, 26 orr.

-Tomás, Francisco. (1980). “La constitución de 1978 y la historia del constitucionalismo español” *Anuario de historia del derecho español*, N°50, 721-752 orr.

-Torres, Antonio eta Gomez, Yolanda. (1995). *Estudios sobre la monarquía*. Madril: UNED.

-Torres del Moral, Antonio. (2012). “Inviolabilidad del rey” *Diario del derecho* [On-line], eskuragarri hemen:
https://www.iustel.com/diario_del_derecho/noticia.asp?ref_iustel=1200576 [Kontsulta eguna: 2021/04/22]

-Torres del Moral, Antonio. (2018). “Cuarenta años de monarquía parlamentaria” *Revista de derecho político*, N°101, 33-64 orr.

-Urías, Joaquín. (2019). *“Crisis institucional y democracia”* Madrid: Tirant lo blanch.

-Varela, Joaquín. (2003). “La constitución de 1978 en la historia constitucional española” *Revista española de derecho constitucional*, Nº69, 31-67 orr.

8.2 Araudia

-Espainiako Konstituzioa

-Kataluniako Autonomia Estatutua

-Prozedura Zibilaren Legea

-"Bill of Rights 1689". *UK Parliament*. The Bill of Rights 1689 is an iron gall ink manuscript on parchment.

- Ley de Sucesión en la Jefatura del Estado, 9 de junio de 1947, B.O.E., nº 160, pp. 3272-3273

8.3 Estatuko Aldizkari Ofiziala

-EAO, 148 zenbakia. 2014ko ekainaren 19a.

-EAO, 169 zenbakia. 2014ko uztailaren 12a.

-EAO, 126 zenbakia. 2002ko maiatzaren 27a.

-EAO, 262 zenbakia. 2019ko urriaren 31a.

-Gorteen saioen egunerokoa, 1977ko uztailaren 22a, zenbakia. 3, p. 39.

8.4 Jurisprudentzia

-ESPAINIAKO AUZITEGI GORENA. 21019/2019 auzia, azaroaren 19koa.

-ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALA. 7/1994 auzia, otsailaren 17koa.

-ESPAINIAKO AUZITEGI GORENA. 1/2014 autoa, urtarrilaren 28koa.

-ESPAINIAKO AUZITEGI GORENA. 21092/2018 autoa, uztailaren 24koa.

-ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALA. 98/2019 auzia, uztailaren 17koa.

-ESPAINIAKO LEHENENGO INSTANTZIAKO AUZITEGIA. 1306/2013 autoa, urriaren 30koa.

-ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALA. 111/2019 auzia, urriaren 2koa.

8.5 Egunkariako artikuluak

-EFE, Redacción Central. (2018). “Los países de la UE difieren sobre el aforamiento de los políticos” *ElDiario.es*. Irailaren 18a.

-Mesas, Alberto. (2016). “Las cortes franquistas se hacen en harakiri” *La Vanguardia*. Azaroaren 18a.

-Jiménez, José María. (2020). “Juan Carlos I paga 678.393 euros a Hacienda para evitar una causa judicial” *El País*. Abenduaren 9a.

-Irujo, José María. (2021). “Juan Carlos I paga más de cuatro millones al fisco en una segunda regularización” *El País*. Otsailaren 25a.

-Magraner, Xabier. (2020). “Reino Unido: historia de una monarquía parlamentaria” *La Vanguardia*. Urtarrilaren 29a.

-Zarzalejos, Jose Antonio. (2014). “El Rey abdica para salvar a la Monarquía de la crisis institucional” *El Confidencial*. Ekainaren 2a.

-Martínez, Juan. (2020). “Claves: ¿Qué es el caso del AVE a La Meca y por qué se involucra al rey Juan Carlos?” *20 Minutos*. Ekainaren 8a.

-Moreno, Rosalina. (2021). “El Supremo archiva las querellas de IU y Omnium Cultural contra el Rey emérito” *Conflegal*. Otsailaren 15a.

-Bravo, Laura. (2017). “Los 250.000 aforados que hay en España, quiénes son y cuáles son sus prerrogativas” *Europa press*. Martxoak 25a.

8.6 Youtube bideoak

-Dmax (2020/08/20). *Así sucedió el rey Juan Carlos I de Borbón a Franco* [On-line bideo fitxategia]

eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=Aa8PiF3Ph6w&t=242s>

-Jorgejurista (2020/08/07). *¿Por qué el Rey no responde por sus delitos? Inviolabilidad, aforamiento e inmunidad?* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen:

<https://www.youtube.com/watch?v=ru-3VgHBADE>

-Unedcursos (2014/03/14). *Jefatura del Estado. La Corona. Irresponsabilidad e inviolabilidad del Rey*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen:

<https://www.youtube.com/watch?v=DbXbqPVM0IA>

-Diario Público (2020/07/10). *¿Es posible retirar la inviolabilidad del Rey?* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=d9ZX6H2yXsM>

-Euronews (2013/05/08). *El papel de los monarcas en Europa*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=BapYIHb7Ag0>

-Agencia Efe (2015/03/11). *El Supremo rechaza la demanda de paternidad contra el rey Juan Carlos*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen:
<https://www.youtube.com/watch?v=CFBJUdjHOU>